

Konstituzio zuzenbidea

1. gaia: Estatu Modernoa

Konstituzio-zuzenbidea

Konstituzio-zuzenbidea zuzenbide-arauen multzoa da; arau-multzo hori toki zehatz batean eta une jakin batean indarrean dago, dagokion gizartea zuzentzeko. Hau da, erregelen eta printzipioen bilduma sistematikoa da.

Konstituzioa Estatuko arau nagusia da eta bertan Estatuko arau garrantzitsuak biltzen ditu: gizabanakoaren eskubideak eta organoen banaketa eta haien funtzioa.

Estatuaren funtzioa

Estatua egungo gizarteak duen antolatzeko era bat da, eta, aldaketak izan ditu azken bost mendeetan. Estatu bat erakunde bat da, gizarte bat arautzen duten arau juridikoak sortzeko gaitasuna duena eta lurralde baten gainean barne eta kanpo subiranotasuna eksklusibotasunean duena. Sistema-politikoaren tresnarik adierazgarriena da Estatuaren boterea instituzionalizatzen du. Botere hori gizabanakoek onartzen dute. Ezaugarri horiekin estatu ezberdin asko sortu dira herrialde eta une historiko ezberdinetan.

Estatu modernoaren sorrera

Estatu modernoaz ari garenean boterea bere baitan kontzentratzen duen eta beraz boterearen monopolioa duen estatuaz ari gara. Hiru elementu edo ezaugarri ditu Estatu modernoak:

- Herri bat: elkarrekin bizi den pertsona-talde egonkorra, eta naziotasuna deritzona duena elkarren arteko lotura juridikotzat. Populazioa eta herria ez dira gauza bera, herria naziotasunak definitzen duelako.
- Lurralde bat: hau da, esparru fisiko egonkor bat, Estatuaren ahalmen politiko eta juridikoen esku geratzen dena.
- Subiranotasuna: Estatuak darabilen boterea ez dela beste norbaitengandik eratorria; hori esan nahi du subiranotasunak. Estatuaren barne-antolamenduarekiko, berriz, ondorio bat dakar, botere politikoaren erabilera eksklusiboa eta baztertzaila dela. Nazioartean, Estatuaren independentzia da subiranotasunaren adierazpenik garrantzitsuenak.

Estatuaren antolaketa era

- Estatu erari dagokionez: Botere subiranoa, lurralde eta herria antolatzeko moduarekin dauka zerikusia.
 - Estatu unitarioa: herria, lurraldea eta boterea homogeenak, sinpleak eta uniformeak diren estatu mota. Botere zentro bakarra duen estatu mota (Adibidez: Frantzia, ez dago deszentralizazio politikorik (legebiltzar autonomiko edo antzekorik), soilik administratiboa.
 - Estatu konplexua: Ordenamendu juridiko dibertsifikatua duen estatu mota, sub-estatu osaturik dagoena.
 - Federala: subiranotasuna egitura federalean dago soilik. Subestatuak ez dira subiranoak.
 - Konfederala: subiranotasuna sub-estatuetariko bakoitzean mantentzen da.

- **Gobernu erari dagokionez:** Estatuaren botere edo aginte politikoaren antolaketa zehatza nolakoa den. 3 botereen arteko antolakuntzarekin zerikusia dauka.
 - **Sistema presidentzialista:** Lehendakari sistema. Botere legegilearen eta exekutiboaren arteko banaketa zorrotza ematen da. Oinarria botere-banaketa sendo bat da: botereetako bati dagokio legeak egitea; eta, besteari, legeak betearazte eta gobernatzea. Sistema hori da hedatuena Ameriketako kontinentean. Ameriketako Estatu Batuen sorrera, esate baterako, lehendik existitzen ez zen Estatu baten sorrera izan zen. Horri esker, botere-banaketaren teoria arazorik gabe jarri ahal izan zen praktikan, Europako sistema absolutistetan eta gizarte feudaletan gertatzen zenaren aurka. Botere legegilea, exekutiboa eta judiziala banatu egin ziren. Bakoitzaren legezketasuna ordezkaritza-printzipiotik zetorren zuzenean eta horrek ahalbidetu zien beren funtzioak eskusiboki eta independentziaz betetzea. Herriak presidentea aukeratzen du zuzenean eta Presidente hori gobernuburu eta estatuburu izango da aldi berean. Presidenteak berak izendatzen ditu ministroak, bai eta haiek kargutik kendu ere. Parlamentuko ganberak eta presidentea elkarrekiko burujabe dira. Presidenteak ezin du lege bat proposatu, beto-eskubide mugatua eta salbuespenezko bat besterik ez zaizkio ematen.
 - **Sistema parlamentarioa:** Parlamentu sistema. Gobernuak parlamentuaren konfiantza politikoa behar du. Herriak parlamentua soilik hautatzen du, eta azken honek gobernuak. Konfiantzazko lotura tresnak daude: inbestidura, konfiantza kuestioa, zentsura mozioa, parlamentuaren disoluzioa. Botere exekutiboa gobernuari dagokio, ez estatuburuari. Gobernuarengandik bereizita dago estatuburuaren figura. Estatu buruzagitzaren eredu ezberdinak daude: monarkia eta errepublika. Gobernuak eta parlamentuaren arteko dialektika ematen da. Adibidez: Espainia: Exekutiboa legegilearekiko dependientea da. Parlamentuak hautatzen du gobernu presidentea, ez herritarrek zuzenean.
 - **Sistema presidentzialistaren eta parlamentarioaren arteko ezberdintasun nagusia** hau da: Sistema `parlamentarioan konfiantzazko tresnak daude: Presidentearen inbestidura, konfiantza-mozioa eta zentsura-mozioa.
 - **Sistema erdi-presidentzialista:** Sistema presidentzialistaren eta parlamentarioaren arteko nahasketa. Botere exekutiboa ez dago erakunde bakar baten esku. Estatu buruak eta gobernuak dituzte ahalmen exekutiboak. Eredu nagusia Frantzia. (Errepublikako Presidente eta Lehen Ministroa)

Estatu modernora arte bilakaera

Estatu modernoa ezarri arte, bestelako antolakuntza motak egon dira historian zehar: Hiri-estatuak (Greziako Polisa eta Erromako Civitasa); Ekialdeko inperioak (Pertsiarra eta Txinatarra); Erdi Aroko poliarkia.

Estatu Modernoaren lehen agerpena estatu absolutu gisa eman zen, hortik aurrera, Estatu Modernoaren sustapena XV-XVIII. mendeetan ematen da, prozesu historiko luze baten

ondorioz. Faktoreak desberdinak dira:

- Erromatar inperioaren gainbeherak (k.o. 476. urtea) hutsunea utzi zuen boterean. Ondorioz, poliarkian bezala ezagutzen den fenomeno agertu zen, horren ondorioz, boterearen atomizazioa ematen da eta monarkia ahulak eta jauntxokeriekin basailutza-harremanak dituzte.
- Garai oso gatazkatsua izan zen. Ez zegoen guztien aurrean nagusituko zen botererik.

Estatu modernoaren aurrekariak

- Erdi Aroko gizarte antolamendua (IX-XIII): Erdia Aroan zegoen gizarte antolamenduak (feudalismoa) nobleen ahalmenak bereziki babesten zituen. Nobleak ziren luraren eta jendearen jabeak, eta bakoitzak bere lurraldeko arauak erabakitzen zituen (Privis legis edo pribilegioetan oinarrituta). Noble horiek enperadore baten agintea onartzen zuten, gerra egiteko bereziki. Hiriak eta hiritarrak ziren salbuespena, adibidez, alkatea zen arlo zibil eta kriminaletan epaile; gotorlekua zeukaten eta harresiak ere eraikitzen zituzten. Merkatariek, aldiz, zuzenbide-segurtasuna behar zuten: arauen aldetik; pisu eta neurrien aldetik; eta diruaren aldetik. Erdi Aroan sistema berri bat pentsatzen ari ziren pentsalariak zeuden, horietako bat Padovako Marsilio da. Horrek idatzitako liburuan universitas civium bat aurreikusi zuen. Gizaseme hiritar guztiek osatzen zuten. Marsiliok hiritar horiei legeak egiteko ahalmena eman zien eta haiekin batera printze baten aginte betearazlea aurreikusi zuen. Hiritar horiek printzearen jarduera kontrolatzeko gai ziren, haren ustez. Marsiliorentzat, aginte bakarraren mende dauden hirien eta probintzien bilduma da Estatua. Baina, antolamendu politiko berria XV. mendean hasi zen forma hartzen Europan, eta sorrera horri lotuta dago Niccolo Machiavelli. Printzea izeneko tratatua garatu zuen bere teoria. Estatu hitza erabili zuen eta hitzaren asmatzailatzat hartzen da. Bere ustez, Printze bat da estatuaren sorburua, eta sortzen du gizakiak arauen mendean jartzeko, giza bakea eta gizarte-ordena lortzeko helburuaz. Machiavellirentzat garrantzitsuena Printzearen arauen existentzia zen, haren boterea; eta bigarren mailan utzi zuen arau horien bidezkoasuna edo justizia. Haren tratatua Printzearen lana gizarte-ordena mantentzen da, eta horretarako legezko bidea erabili behar du.
- Monarkia absolutua (XV-XVI): Mende horietan Pizkundera bizi zen Europan, eta, hari lotuta, humanismoa: pentsaera horretan gizasemea ikuspegi guztietatik eta bere lorpen guztiekin, gaitzat eta ardatzat hartu zen. Zientzia Jainkoaren lekua hartzen hasi zen eta eta horrek politika-antolamenduan eragina izan zuen. Ordura arte boterearen iturburua Jainkoa izan bazen, ordutik hona boterearen iturburua gizasemeengan izango zen. Europan eratu ziren monarkia absolutuak (botere osoa errege-erregin baten eskuetan dago eta ez dago botere banaketarik). Une hartako pentsalarien ideietan hasi zen forma hartzen, horien artean, Jean Bodin. Hari dagokio burujabetza eta subiranotasunaren kontzeptua. Garaiko beste pentsalari bat Thomas Hobbes izan zen. Hobbesek idatzitako Leviathan idazlanean, gizasemeek, hitzarmen baten bitartez, hirugarren artifisial bati, estatuari, ematen diote subiranotasuna euren burua babesteko. Hobbesentzat gerrak argitzen ditu gizasemeen artean dauden

ezberdintasunak.

- Estatu liberala (XVI-Zuzenbide estatua): Gizarteko antolakuntza berria agertzen da, klase sozialak. Absolutisten gehiegikeriei aurre egiteko tresna gisa agertzen da konstituzioa Frantzian. Gizasemearen eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpenaren 16. artikuluan laburbildu zituen jaioberria zen konstituzio-estatuaren ezaugarriak, honako hau adierazten zuen: Gizarte batek ez badu eskubideen bermerik ziurtatua eta ez badu Boterearen banaketarik zehaztuta, ez du konstituziorik. Beste modu batean esanda, azken hori zuzenbide estatua izateaz gain, estatu demokratikoa eta liberala ere bazen, ez zuelako ekonomian parte hartzen. Frantziako Adierazpenean ikus daitekeen moduan, zuzenbide-estatuak hiru ezaugarri ditu:
 - Legearen nagusitasuna: legea betebeharrezkoa da herriarentzat eta baita agintea duenarentzat
 - Botere-banaketa: hiru botere edo aginte daude: legegilea, betearazlea eta judiziala.
 - Oinarrizko eskubideen bermea: legeen bitartez egiten da. Legegileak onartzen eta arautzen duen eskubidea baino ez da benetako eskubidea izango.

Kapitalak berarentzako antolamendu bat behar zuen, bere interesak hobeto kudeatzeko. Hori lortzeko hainbat pentsalarik euren ekarpenak egin zituzten. Horien artean John Locke. Lockentzat estatua sortzen da, bereziki, jabetza pribatua babesteko. Ez da hitzarmen metafisikoa, baizik eta benetako hitzarmen bat, konstituzio izenaz ezagutuko dena. Haren ustez, agintariak eta agintearen mendean daudenak legea bete behar dute. Horretaz gain, botere hitzean hiru alor bereizi zituen, ez zelako ona botere guztia pertsona bakarrari ematea, eta harentzat komenigarria zen botere bakoitza esku ezberdinetan egotea. Lockeren ideiak konstituzio-monarkia deitzen denaren iturburua izan ziren, hau da, errege-erreginek aginte betearazlea baino ez duten politika erarena. Garaiko beste pentsalaria Montesquie izan zen eta berari dagokio gaur egun mantentzen den aginteen banaketa: legegilea, betearazlea eta judiziala. Bere idazlanetan gizalaba ere subjektu izatearen alde egin zuen. Garai hartan ere ekonomiak garatzen hasi zen eta Adam Smith izan zen garaiko ekonomialaririk garrantzitsuenak, haren teoriaren zati batean oinarritu zen Estatu liberala, bereziki, norberaren askatasunaren aldekoan. 1776an argitaratu zuen liburuan, merkatu librean oinarritutako ekonomia libre baten aldeko aldarrikapena egin zuen. Estatuaren papera ere aurreikusi zuen: hiritarrak pertsona autonomoak bilatzeko bereziki, hau da, behar zuten guztia eskuratzeko gai bilakatzeko.

- Estatu soziala (XX.): Gizalaben eta gizasemeen ezberdintasunean, merkatu librean eta estatuaren parte-hartzerik ezean oinarritutako ekonomiak bere lehenengo munduko krisia bizi zuen, eta krisi horren ondorioz sortu zen estatu soziala. XX. mendeko hasierako krisi ekonomikoak agerian utzi zuen estatu liberalaren porrota, eta beste era bateko antolamendu bat sortzeko baldintzak jarri zituen. Sorrera horren atzean dauden gertakizun eta ideien artean, Keynesen teoria dago. Bere teoriaren xedea da sistema kapitalista mantentzea estatuaren esku-sartzearen bidez. Argi zeukan estatuaren esku-sartzerik gabe, sistema bera zegoela arriskuan, ez zelako gai sortzen zituen arazoei aurre egiteko. 40ko hamarkadan jarri zen benetan martxan estatu soziala eta

estatu liberaleko ezaugarriak aldatu zituen. Garrantzi berezia du konstituziozkotasun-printzipioaren onarpenak. Konstituzioa arau bilakatu zen, eta gainerako arau guztiak bete behar zuten han adierazitakoa. Eskubideen babesean ere aldaketak egin ziren. Giza duintasuna ziurtatzea izango da estatuaren oinarria. Botere-banaketa mantendu arren, botereen arteko harremanak eta botere betearazlea aldatu ziren. Horretaz gain, subiranotasuna herriarena zela adostu zen eta bai emakumeek bai gizonek politikan parte-hartzeko eskubidea zuten. Alderdi politikoak bilakatu ziren politikan parte hartzeko ezinbesteko bitartekoak.

2. gaia: Konstituzioa arau juridiko bezala

XX. mende hasieran indartu ziren konstituzioak, itun konstituzionalari arau-izaera eman zitzaienez. Momentu horretan konstituzioa legetzat ulertzen hasi zen eta lege guztien gainetik zegoen.

Oinarrizko legea: Konstituzioa

Estatu botereak antolatzeko eta mugatzeko forma juridikoa da Konstituzioa, baina ez da bakarria izan ere idatzizko konstituziorik gabeko herrialdeak ere badaude. Konstituzioa Estatu botereen iturri da. Berdintasun printzipioak garrantzi zentrala dauka (berdintasun formala (14. artikulua): denok gara legearen aurrean berdinak; eta berdintasun materiala (9.2 artikulua: nahiz eta denok berdinak izan legearen aurrean, praktikan hori ez da betetzen). Hitzarmen sozialaren adierazpena ere bada Konstituzioa, segurtasun politikoa eta juridikoa lortzeko. Amaitzeko, Estatu konstituzionala adierazten du, hau da, botere politikoa antolatzeko sortzen den egitura juridiko politikoa.

Konstituzio motak edo tipologia

Hainbat Konstituzio mota bereiz daitezke:

- Arrazional-araukorra: Arau sistema bat da: konstituzio idatzia, dokumentu bakarrena, subiranotasun despertsonalizatua, gizarte hitzarmenaren ondorioa, printzipio arrazionaletan oinarritua, araukorra, eta zurruna erreformatzeko. Estatu liberalarekin bat egiten duen ikuskera: eskubide indibidualen bermea eta botereen mugaketa. (Espiniako 1978ko Konstituzioa)
- Tradizionalista-historikoa: Konstituzioa herri baten tradizioen emaitza izango da.
- Soziologiko-marxista: Konstituzioa gizartearen izate errearen irudia da. Nolako jendarte, halako konstituzioa.
- Kontzepzio autoritarioa: nagusitasun egoeran dagoenak ezarritako erabaki unilaterala. Diktadura

Konstituzioaren egitura

Espainiako Konstituzioa hiru zati nagusi ditu:

- Atal ideologikoa edo Hitzaurrea: Konstituzioaren helburuak jasotzen dira (baloreak, subiranotasunaren jabea...).

- Atal dogmatikoa: baloreak, printzipio konstituzionalak (Estatu formaren definizioa eta herritarren eskubideen babesa) eta eskubide zein askatasunak.
- Atal organikoa: Institutuzioak eta lurralde antolamenduaren oinarriak adierazten dira. Bost dira oinarritzko eskubideak: Estatu burua edo Erregea; Gorte Orokorrak; Gobernuak; Epaitegiak eta Konstituzio Auzitegia. Estatuaren lurralde-antolamendua: Estatuaren batasuna eta autonomia-eskubidea.

Konstituzioan kontuan hartu beharreko elementuak

- Interpretazioa: Arau juridiko guztiak, Konstituzioa barne, interpretatu egiten dira, epaileek esku artean duten auzia konpontzeko eta Auzitegi Konstituzionalak legegileak egindako konstituzioaren interpretazioa kontrolatzen du, hau da, konstituzionaltasun kontrola. Interpretazio juridikoaren edo konstituzionalaren erregelak: Hitzez-hitzeko interpretazioa; sistematikoa (alboko arauak aintzat hartuz, sistema); historikoa (arauaren jatorriari erreparatzen diona); teleologikoa (helburuari erreparatzen diona); soziologiko-ebolutiboa: errealitate sozialaren aldaketari erreparatzen diona.
- Erreforma: Konstituzioaren X. tituluak (166-169 artikulua) Konstituzioa erreformatzeko bi prozedura arautzen ditu: prozedura arrunta eta berezia.
 - Prozedura arrunta: (167. artikulua): Prozedura bereziari eragiten ez dioten artikulua aldatzeko erabiltzen da. Parlamentuan bi ganberen artean $\frac{2}{3}$ -k onetsi behar du, hori ez gertatzekotan, bi aukera daude, bata, batzorde mistoan eztabaidatzea, edo, bestea, Senatuan gehiago absolutuak eta Kongresuaren $\frac{2}{3}$ -k onestea.
 - Prozedura berezia: (168. artikulua) Nahitaezkoa da Konstituzio osoa berritu nahi denean edo aldaketak honako atal hauetako bat ukitzen duenean: Aurre-izenburua; I. Tituluko Bigarren Atalburuaren Lehenengo Sekzioa (Oinarritzko eskubideak) edo II. Titulua (Koroa). Parlamentuan adostasun maila handiagoa eskatzen du, ganbara bien artean (Kongresua eta Senatua) $\frac{2}{3}$ -k ados egon behar du. Legebiltzarrak aldaketa onartu eta gero, Konstituzioaren aldaketa hori referendum lotesle* baten bidez hautatu behar da. Gorteak disolbatzen dira eta hauteskundeak deitu behar dira, horren ostean, Gorte berriak $\frac{2}{3}$ -k onetsi behar du.

*(Loteslea: referendumaren emaitza errespetatu behar da.)

- Kontrola: AEBko sistema. 1787ko Konstituzioak ez zuen ezer esaten gaiari buruz, baina eztabaida konstituzionalean, legeak konstituzionalki kontrolatzeko beharra azpimarratu zen. Marbury Vs Madison sententzia. Lege batek konstituzioaren aurka egiten badu, inaplikatu egingo da. Kontrol difusoa Edozein epailek egiten du eta horrek jurisprudentzia sortzen du. Legeen Konstituzionaltasun kontrola European Konstituzio Auzitegiaren bidez egiten da.

Konstituzioaren oinarritzko kontzeptuak

- 1978ko Espainiako Konstituzioaren helburuak: 1812ko konstituzioarekin hasitako tradizio luze baten jarraipena da. Ahalegin ugari egin da Espainiako erkidego

politikoa antolatzeke eta indarrean dagoen konstituzio-arauak hainbat elementu jaso ditu tradizio horretatik. Europako eta Ameriketako tradizio konstituzionalak bilatu ditu beste elementu batzuk. 1978ko Konstituzioaren helburua da: estatuaren egitura politikoa funtsezko elementuak lege-testu bakar batean ordenatzea

- Konstituzioaren egitura formala:
 - Sarrera
 - Atariko Titulua.....1-9. artikulua
 - I. Titulua: Funtsezko eskubideak eta eginbeharrak.....10-55. artikulua
 - II. Titulua: Koroa.....56-66. artikulua
 - III. Titulua: Legebiltzarra66-96. artikulua
 - IV. Titulua: Gobernua eta Administrazioa.....97-107. artikulua
 - V. Titulua: Gobernuaren eta Legebiltzarraren arteko harremanak...108-116. art.
 - VI. Titulua: Epailera.....117-128. artikulua
 - VII. Titulua: Ekonomia eta Ogasuna.....128-136. artikulua
 - VIII. Titulua: Estatuaren Lurralde Antolamendua.....137-158. artikulua
 - IX. Titulua: Konstituzio Auzitegia.....166-169. artikulua
 - Xedapenak: xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak, xedapen indargabetzaileak eta azken xedapenak
- Konstituzioaren egitura materiala:
 - Atal ideologikoa edo Hitzaurrea: Konstituzioaren helburuak jasotzen dira (baloreak, subiranotasunaren jabea...).
 - Atal dogmatikoa: baloreak, printzipio konstituzionalak (Estatu formaren definizioa eta herritarren eskubideen babesa) eta eskubide zein askatasunak.
 - Atal organikoa: Instituzioak eta lurralde antolamenduaren oinarriak adierazten dira. Bost dira oinarriko eskubideak: Estatu burua edo Erregea; Gorte Orokorrak; Gobernua; Epategiak eta Konstituzio Auzitegia. Estatuaren lurralde-antolamendua: Estatuaren batasuna eta autonomia-eskubidea.

Konstituzioaren oinarriak. Zuzenbide-Estatu sozial eta demokratikoa

Estatu soziala (1.1 artikulua)

Estatu sozial horren isla Konstituzioak bermatzen dituen eskubide-sozialak dira. Eskubide horiek ez dute eraginkortasun bera eta batzuek aitortzen konstituzionalak dute: hezkuntza eskubidea (27); greba eta sindikazio eskubidea (28), lan egiteko eskubidea (35), lan hitzarmen eta negoziatze eskubidea (37), familiaren babeserako eskubidea (39), errenta eta enplegua banatzeko politika (40), etxebizitza eskubidea (47), gazteriaren aldeko politikak (48), gutxitu fisiko-psikikoen aldeko politikak (49), zahartzaro pentsioak (50), interes orokorra (128), jardura ekonomikoaren planifikazioa (131.1); kontseilu ekonomiko eta soziala (131.2) eta berdintasun materiala (9.2).

Monarkia parlamentarioa (1.3 artikulua)

Espainiako estatuaren forma politikoa edo gobernu forma monarkia parlamentarioa da. Erregeak ez du botere exekutiborik. Estatu-burua da, baina ez du prozesu politikoan

parte-hartzen; ezin du Estatuaren zuzendaritzan eskua sartu.

Autonomien Estatura (2. artikulua)

Konstituzioak Espainiako nazio batasun zatiezina hartzen du oinarri, hura izanik espainiar guztien aberri erkide eta banaezina, eta era berean aitortzen eta bermatzen du Espainia osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia-eskubidea eta haien arteko elkartasuna. Autonomien estatu forma da: autonomia-eskubidea baina batasun printzipioan oinarrituz. Hauek dira oinarrizko elementuak:

- Entitate autonomo bezala eratzeko nazionalitate eta erregioen eskubidea.
- Autonomiara iristeko bideak: azkarra eta mantsoa.
 - Autonomia-eskubidea martxan jartzeko prozedurak definitzen dira.
- Ez da zehazten zeintzuk diren erkidego autonomoak.

Espainia lurraldetasunaren ikuspegitik antolatzeko bi ideia daude, bata, Nazio bateratua da, eta, bestea, nazionalitate eta eskualdeen autonomia eskubidea bermatzea.

Zurruntasun konstituzionala eta konstituzioa erreformatzeko prozedura

168. artikulua araber, aurretik aipatutako hiru oinarri horietako bat aldatzea litzateke Konstituzioaren erabateko eraberritzea. Zilegi dira hiru oinarri horien esentzian eraginik ez duten aldaketak ere, hortaz, bi bide daude konstituzioa aldatzeko:

- Prozedura arrunta: (167. artikulua): Prozedura bereziari eragiten ez dioten artikulua aldatzeko erabiltzen da. Parlamentuan bi ganberen artean $\frac{2}{3}$ -k onetsi behar du, hori ez gertatzekotan, bi aukera daude, bata, batzorde mistoan eztabaidatzea, edo, bestea, Senatuan gehiengo absolutuak eta Kongresuaren $\frac{2}{3}$ -k onestea.
- Prozedura berezia: (168. artikulua) Nahitaezkoa da Konstituzio osoa berri nahi denean edo aldaketak honako atal hauetako bat ukitzen duenean: Aurre-izenburua; I. Tituluko Bigarren Atalburuaren Lehenengo Sekzioa (Oinarrizko eskubideak) edo II. Titulua (Koroa). Parlamentuan adostasun maila handiagoa eskatzen du, ganbara bien artean (Kongresua eta Senatuak) $\frac{2}{3}$ -k ados egon behar du. Legebiltzarrak aldaketa onartu eta gero, Konstituzioaren aldaketa hori referendum lotesle baten bidez hautatu behar da. Gorteak disolbatzen dira eta hauteskundeak deitu behar dira, horren ostean, Gorte berriak $\frac{2}{3}$ -k onetsi behar du.

Konstituzioaren eraldaketa

- Ezaugarriak: Konstituzioak iraupen-asmoa du. Konstituzioak zehazten ditu eutsi nahi nazion estatu-egiturari dagozkion oinarriak. Iraupen asmoa duen estatu egitura bat adierazten du. Gizartearen elkarbizitza eta botere publikoen jardura arautzerakoan, kontuan hartu beharrezko zenbait oinarri ezarri dira Konstituzioaren testuan. Sendotasunaz gain, iraunkortasuna eman nahi zaie Konstituzio-oinarri horiei, bereizketa bat egiten da Konstituzioak adierazitakoa aldatzeko prozeduren eta beste edozein lege sortu edo aldatzeko prozeduren artean.
- Aldaezinak diren elementuak: Konstituzioa aldatzeko prozedura beste legeak aldatzekoa baino konplexuagoa da, eta hortaz, horrez gain, badira Konstituzioaren aldaezinak diren zenbait gako. Horiek sistema politikoa egituratzen duten oinarrizko elementuak dira: monarkia parlamentarioa gobernu formatzat duen zuzenbide-estatu

sozial eta demokratiko izaera ematen diotenak, hau da, 1.1 eta 1.3 artikulua ezin dira aldatu.

- Aldatzeko prozedurak: Konstituzioaren X. tituluan agertzen dira (166-169 artikulua)

3. Gaia: Espainiako Konstituzioa. Zuzenbide historikoa. Trantsizioa

Espainiako estatuko historia konstituzionalaren ezaugarriak

Espainia Konstituzionalismora goiz batu zen eta nahiko ezegonkorra izan da, 8 Konstituzio eta proiektu batzuk egon dira. Izaera aurrerazale eduki zuten, salbuespenak, izaera kontserbadorea izan dutenak. Konstituzio horiek hausturaz ezarri dira, ez erreformaz, eta, gobernu era monarkia izan da Errepublikara garaietan izan ezik. Botere judizial ahula eta askatasun eta eskubideen bermea ere ahula zuten.

Konstituzioaren urtea	Subiranotasuna	Ideologia-mota	Aginteen arteko harremanak	Erreformatzeko era	Konstituzioaren autorea	Indaraldia
¹ 1812	Nazio	aurrerazale	Aginte banaketa onartzen du	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	5-6 urte baina ez jarraian
1834ko Estatutua	Errege	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Errege, Dekretu beten bidez	3 urte
1837	Nazio	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	malgua	Gorte konstituziogileak	8 urte
1845	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	1837koaren erreforma	24 urte
1869	Nazio	aurrerazale	Aginteen banaketa	zurruna	Gorte konstituziogileak	4 urte
1876	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Gorte konstituziogileak	47 urte
1931	Herri	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	zurruna	Gorte konstituziogileak	8 urte
Oinarrizko legeak 1938-67	Nazio (teorian) Estatuburua (praktikan)	kontserbadore	Aginte bakarra	Zurrun-zurrunak	Franco Jenerala	37 urte
Erreforma politikarako legea 1976						
1978	Herri -nazio espainiarra-	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	

Taulan ikustenenez, Espainiako historian ohituran oinarritutako konstituzio kontserbadoreak izan dira gehien iraun dutenak, eta Europan estatu soziala finkatzen ari zen denboran, Espainia diktadura bat zen. Aurrekari horiekin heldu ginen 1978ko Konstituziora:

- Antzinako Erregimenetik estatu liberalerako trantsizioa:
 - 1812ko Kadizeko Konstituzioa sei urte egon zen indarrean eta absolutismoaren aurka egitea zuen helburu eta gorte bakarrekoa zen eta hiru printzipio zituen: subiranotasun nazionala; botere banaketa (legegilea: gorteak erregearekin; betearazlea: erregea; eremu penal eta zibila: epaileak) eta ordezkariak (herritarrak).
- Aro Isabeldarra: 1834 eta 1868 urteen artean hiru konstituzio
 - 1834ko Estatutua: Izaera kontserbadorea zuen eta gutuna zen. Monarkak organo batzuei boterea eman zien. Laburra eta osotasunik gabea izan zen. Soilik 50 artikuluk osatzen zuten. Ez zegoen subiranotasun nazionalik. Ez zegoen botere banaketarik. Sufragio murriztua zegoen.

- 1837ko Konstituzioa: Izaera liberalekoa eta tamaina erdikoa, 77 artikuluk osatzen zuten. Eskubide, askatasunen eta botereen antolaketa bermatzen zen. Ez zuten erreformatzeko mekanismorik eta bi ganberak osatzen zuten (Kongresua eta senatua); erregeak ahalmen legegilea zuen. Eskubideen katalogo bat jasotzen zuen eta 8 urtez egon zen indarrean.
- 1845ko Konstituzioa: izaera kontserbadorea zuen eta subiranotasun nazionala ezabatu zuen, partekatutako subiranotasuna bermatu zen.
- Seiurteko iraultzailea (1868-1874)
 - 1869ko Konstituzioa: Estatu demokratiko liberal baten saiakera izan zen. Konstituzionalismo liberal aurrerakoien partea. Eskubideak modu zabalean erregulatu ziren eta Erljio askatasuna bermatu zen. Sufragio unibertsal baina ez zuzena erabiltzen zen eta subiranotasun nazionala zegoen.
- Berrezarkuntza (1874-1931)
 - 1876ko Konstituzioa: izaera liberal-kontserbadorea zen eta gehien iraun duena espainar konstituzionalismo liberalean, bi alderdi nagusien arteko hitzarmenena egon zelako. Monarkaren eta Gorteek adostua. Erreformatzeko malgua zen eta Erregeak botere zabalak zituen: Gorteak deitu eta desegiteko ahalmena, Botere exekutiboa zuen, armadaren buru zen. Sistema politiko bipartidista zegoen. Erljio katolikoa ezartzen zuen Estatukoa bezala, eta erlijio askatasuna ezabatuz. Legegile bikamerala zegoen (Kongresua: sufragio murriztuaz hautaturik eta Senatua: erregeak izendatua).
- 1931ko Errepublika Demokratikoa
 - Batzorde batek prestatutako proiektua izan zen. Eztabaida gai nagusiak: lurralde, gizarte eta erlijio gaiak izan ziren. 1931ko abenduaren 9an onartu zen Konstituzioa eta legegintza teknika egokia zuen eta luzera ertaina. Herri subiranotasuna eta sufragio orokorra bermatzen ziren. Zuzeneko demokraziaren isla zen. Estatu “Integrala” zegoen, hau da, erregio eta udalerrien autonomian oinarritua. Gorte unikamerala zen. Eskubideak eta bermeak: eskubide indibidualez eta kolektiboez gain, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ezarri ziren. Estatuak ez zuen erlijio ofizialik.
- Sistema politiko frankista: Gerra Zibilaren ostean osatutako erregimen politikoa izan zen. Ezaugarri nagusia: kaudillajea. Franko jeneralak botere osoak zituen. Garai honetan ez dago Konstituziorik, baina, Oinarrizko legeak bazeuden. Sistema politikoaren egitura: Estatu buruzagitza: gobernuburua hautatzen zuen, legeak betatu zitzakeen, erreferenduma deitu... Gobernua: Presidente, Ministro kontseilua eta bere batzorde delegatuek osatzen zuten. Gorteak: Movimiento Nacional (erreginema mantentzen zuen alderdi bakarra); Organización sindical (bakarra); familia eta udalerrietako ordezkariak. Oinarrizko eskubideen eta botere banaketaren ukapena. Errepresio basatia zegoen, askatasunik eza.
- Diktaduratik egungo sistemara trantsizioa: Bi momentu bereizten dira
 - Aurre-trantsizioa: sistemaren barruan gertatu zen. 60 hamarkadan aldaketa

ekonomikoak eman ziren, haien artean, aktibazioa eta liberalizazioa, horiekin batera turismoaren gorakada eman zen. Desarrollismoa ere gauzatu zen. Gobernuan teknokratak ziren nagusi. Hirietarako migrazioak eman ziren. Garai hartan, ekonomia liberalizatuaren eta gogor kontrolatutako sistema politikoaren artean. 1973 eta 1975 artean gertatutakoak krisiaren areagotzea eragin zuten: Carrero Blancoren heriotzaren ostean, Arias Navarro izendatzen du Frankok gobernuko presidente. Handik gutxira, Francoren heriotza eman zen eta sistema ezin zen bere horretan mantendu.

○ Trantsizioa:

■ Lehen fasea (1975eko abendutik 1976ko ekainera): Juan Carlos Borboikoa tronura heltzen da Frankok izendatuta eta Oinarrizko Legeak zin egin zituen, bitartean, Arias Navarrok gobernuan jarraitzen zuen eta erregimenarekin jarraitzea nahi zuten. Biltzeko eskubidearen legea eta Asoziazio politikorako eskubidearen legeak onartzen dira partzialki.

■ Bigarren fasea (1976ko uztaila-1978ko abendua): Arias Navarrok dimisioa eman ostean, Adolfo Suarez jarri zuten gobernuburu. Horrekin batera, Suarezek trantsizioa egiteko asmoz, indarrean zeuden legeak erreformatu zituen, hausturarik egin gabe. Aldedi politikoak ere arautu zituen, Alderdi Komunista barne. 1977ko ekainean hauteskunde orokorrak egin ziren Kongresua eta Senatua aukeratzeko. Hilabete batzuk geroago Moncloako Itunak onartu zituen, maila politiko eta ekonomikoan, trantsizioa egiteko asmoz. Bigarren fase honetan Erreforma Politikorako Legea egin zen, Ministroen Kontseiluak 1976ko irailaren 10ean onartu zuen eta lege horrekin gorte frankistek euren desagertzea onartu zuten. 1. artikuluan Espainiako politika era berria definitzen da: Demokrazia, legearen nagusitasunean oinarritzen dena. Oinarrizko eskubideak bortxaezinak direla ere adierazi zuen. Bigarrenen artikuluan Gorte berriak ezarri ziren, Kongresua eta Senatua. Eta hirugarrenean Prozesu Konstituziogilearen oinarria ezarri zen.

- 1978ko Konstituzioa: Azaroaren 20an hasi zen abenduaren 6rako deitutako referendumerako kanpaina, eta boto eskubidea zuten ia 27 milioi pertsonen artetik ia 18 milioik botoa eman ondoren ia %90k baiezkoa eman zion referenduari, Euskadin boto emaileak %45 izan ziren eta horien ia %70k baietz bozkatu zuen. Hitzaurreak, titulu preliminarrik, titulu dogmatiko batek eta beste 9 organikok osatzen dute Konstituzioa eta guztira 169 artikuluru ditu. Sinkretikoa da, hainbat iturritatik edandakoa (Frantzia, Portugal...) eta demokrazia ordezkatzailerik bermatzen du alderdi politikoaren bidez. Konstituzioa bermatzailea da, berme bikoitzarekin, alde batetik, eskubide eta askatasunen berme judiziala eta, betetik, babes-helegitea Auzitegi Konstituzionalean jartzeko aukera. Zurruna dela esan daiteke, hau da, aldatzeko zaila da. Espainia Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa dela azpimarratzen du.

4. Gaia. Estatu Demokratikoa

Demokraziaren kontzeptua

Demos (herria) + kratos (gobernua) hitzaren eratorria da demokrazia, hau da, herriaren gobernua. Herria da botere politikoaren zilegitasunaren iturria eta ordezkariak politikoaren bitartez Herria ageriko bilakatzen da Estatuaren egituran.

Demokrazia ereduak

- Demokrazia liberal bermatzailea: liberalismoaren oinarritzko ereduak da. Boterearen kontrolean eta norbanakoari egindako gorazarrean oinarritzen da (norbanakoa elementu gorena da). Honako ezaugarri hauek ditu:
 - Norbanakoa estatuarengandik babesten du.
 - Eskubide zibilak: adierazpen askatasuna, jabetza...
 - Botere banaketa
 - Ordezkarienganako kontrola.
 - Gobernatuen oniritzi edo konsentimendua.
- Demokrazia parte-hartzailea: demokrazia liberal bermatzaileari kritika egiten dio. Ezin da norbanakoa era isolatuan ulertu. Erabaki kolektiboek administrazioarekin bat egiten duten eremu bat.
- Demokrazia lehiakor-pluralista: joko demokratikoa elite batzuen esku geratzen dela kontsideratzen du, Ongi prestaturiko eliteak hautatzeko sistema dauka eta lehia dago auto-hautatu diren bi politikari talderen artean. Hauteslearen papera ordezkariak hautatzea da ez gaiak lantzea

Estatu demokratiko baten betebeharrak eta printzipio demokratikoen adierazgarriak

- Herri-subiranotasuna: Espainiako Konstituzioaren 1.2 artikulua adierazten du. Subiranotasun hori, Konstituzioa onetsi eta bere gobernu-sistema aukeratzeko erabiltzen du herriak, bai eta ordezkari izango dituen parlamentari eta gobernakideak aukeratzeko ere. Herria da botere politikoaren zilegitasun iturria.
- Gizarte erakunde, ekimen politiko eta legegilean, hiritar guztien parte-hartzea ahalbidetu eta sustatzea. Hainbat parte-hartze mota dago, bi garrantzitsuenak: bozkatzeko eskubidea eta kargu nahiz funtzio publikoak betetzeko eskubidea.
- Elkarte, sindikatu eta alderdi politiko demokratikoak ahalbidetzea edo gizarte-pluraltasunaren babesa. Demokrazia-printzipioak pertsonen arteko berdintasuna ere bilatzen du. Berdintasunak bereizketaren debekua eskatzen du, baina, ez du bereizketa baztertzeko, baldin eta bereizketa hori egiteko arrazoi egokiak badaude. Gizartean pluraltasun edo aniztasuna aitortzeaz gain, pluraltasun hori baikortzat hartzen du. Alderdi politikoek eta sindikatuek islatzen dute gizartea osatzen dutenen pluraltasun politikoa.
- Hirugarren belaunaldiko eskubideen aitorpena

Demokrazia-printzipioaren eragina (I)

- Hauteskundeak eta herri-funtzioak: Hori bideratzeko eta herriaren parte-hartzea ziurtatzeko 23. artikuluan aurreikusten da herritarren aukera politikan eta herri-funtzioetan sartzeko. Politikan herriaren parte-hartze hori bideratzeko alderdi

politikoak izango dira bitarteko bereziak, eta Konstituzioaren 6. artikuluan alderdi politikoek aniztasuna adierazten dutela adierazten da.

- Alderdi politikoen funtzioa: Gizarte zibilaren eta gizarte politikoen arteko bitartekotza egitea. Herritarren aldarrikapenak egitasmo politiko global batean islatzen dituzte eta sistema demokratiko baten funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte: Pluraltasun politikoa islatzen dute; herri-borondatearen eratzen eta parte hartzen dute eta parte-hartze politikorako tresna oso garrantzitsuak dira. Elkarte pribatuak dira, eta horiei askatasun osoz atxiki daiteke edozein. Konstituzio sistemetan zenbait funtzio publiko garrantzitsuak betetzen dituztenez, diru-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea dute, lortutako boto eta aulkien arabera. Alderdi politikoei konstituzioa eta legeak betetzea eskatzen zaie eta egitura eta funtzionamendu demokratikoa izan behar dute.
- Parte hartzeko beste bide batzuk: Hauteskundeetan ezinbestekoak baldin badira alderdi politikoak, beste parte-hartze mota batzuk ere aurreikusten dira Konstituzioaren 7. artikuluan. Bai alderdi politikoak, bai sindikatuak eta baita enpresaburuen elkarteak ere agindu bat jasotzen dute Konstituziotik: barne egitura eta jardunbideak demokratikoak behar dute izan.

Ordezkatze politikoaren ezaugarri nagusienak

Legebiltzarra da ordezkatze erakunde garrantzitsuena eta ordezkatze politikoa da botereari zilegitasuna ematen diona. Berdintasun printzipioan oinarritzen da, guztiak berdinak, eskubide zibil eta politikoekin. Agintaldia bukatu arte, legebiltzarraren hautapena ezeztazina da. Alderdi politikoen garrantzia adierazten du.

Ordezkaritza

Konstituzionalismo demokratikoa ordezkaritzan oinarritzen da; ordezkarien eta ordezkatuen arteko loturan. Horrek esan nahi du ordezkariek hautatuak direla hauteslearen sufragio unibertsalaren bidez, aldizka ospatzen diren hauteskunde libreetan. Bi osagai ditu ordezkaritza demokraziak: hautesleria eta hauteskundeak.

Ordezkaritza demokraziaren funtzionamendurako osagaiak

- Alderdi politikoak: hauteskunde eskaintza arrazionala eta erabilgarria egiten dute. Horretarako lanabes dira.
- Hauteskunde-sistema: hauteslearen erabakia arrazionala eta erabilgarria egiten duen baliabidea.
 - Hauteslearen borondatea juridikoa sortzen duen prozedimendua da hauteskunde-sistema eta lau osagai ditu:
 - Hauteskunde era:
 - Gehiengodun sistemak: Garaile geratzen den zerrendari emandako eserlekuak, gehienetan barruti uninominaletan. Ezaugarriak: gutxiengoak kaltetzen dira; rabateko gehiengo absolutuko gobernuak ateratzen dira eta alderdibitasuna ematen da. Bi eredu daude:

- Gehiengodun sistema erlatiboa (itzuli bakarreako): Alderdibitasuna nagusitzen da eta gehiengo egonkorrak.
- Erabateko gehiengodun sistema (itzuli bikoitzeko sistema): Aurreko ondorioak ez dira hain nabarmenak. Barruti plurinominaletan gutxiengoaren ordezkariak bat lortzen da.
- Sistema proportzionalak: Alderdi bakoitzak eserleku zenbaki zehatz bat lortuko du lortutako boz kopururaren proportzioaren arabera. Kasu hauetan barruti plurinomialak daude. Hautagai zerrendak bete behar diren eserleku beste izen eduki behar du
 - D'Hont sistema: Hautagaien zerrenda bakoitzak lortu duen boz-kopurua zenbatu ondoren, emaitza hori zenbaki kardinalen artean zatitu egiten da, batetik, barruti horretan hautatu beharreko aulki kopurura arte. Eserlekuak zatidura handientzat dira. Alderdi politikoek botoen %3 lortu behar dute. Sistema hau erabiltzen da Espainian, boto gehien jaso duten alderdien zerrendak hobetsi egiten direlako eta horrela gehiengo egonkorrak esaten laguntzeko
 - Bete beharreko eserleku zenbakia
 - Hauteskunde barrutiak, eserlekuen banaketarako
 - Eserleku lortzeko lege-langa egotea edo ez

Demokrazia-printzipioaren eragina (II)

Hauteskundeez, herri funtzioez eta sindikatuez gain, biztanleriak beste modu bat dauka parte-hartzeko: referenduma. Herritarrek euren kabuz erabakitzeko aurreikusita duten bidea, referenduma da, demokrazia zuzenaren baliabideetariko bat. Referenduma Konstituzioaren eraldatzeri dago lotuta eta baita ere Estatutuen eraldatzeari. Espainiako Konstituzioaren referendumeekin zerikusia duen artikulua 92. da.

Nahiz eta litekeena izan referendum deialdia hainbat eremutan egitea, ez da posiblea izan ere Estatuak erabateko eskumena du herri-kontsultak, referendumearen bidez, egiteko baimenean. (149.32 artikulua). Referendumez gain, herri-ekimenaren bidez ere parte-hartzeko aukera badago. Herritarrek ezin dute zuzenean legegintza-prozedura legislatiboan parte hartu. Ordezkariekin bidez parte hartzen dute prozesu horretan, hau da, parlamentari eta legebiltzarkideekin bitartez. Salbuespeneko tresna da eta lege organiko bidez arautu behar da. Herri ekimena aurrera eramateko 500.000 izenpe behar dira Estatu mailan gutxienez eta 30.000 EAEn. Zergekin eta nazioartekoko gaiak ezin dira eskatu.

5. Gaia. Estatu zuzenbidezko estatu bezala

Gaur egun zuzenbide-estatu deritzon estatu-forma gizartearen betidaniko desira bat islatzen du: nahikeriaren eta despotismoaren baztertzeari. Estatu-forma hori burgesiaren beharrezan indarrez agertu zen. Zuzenbide-estatu deritze, gaur egun, hasierako konstituzio-formen funtsezko elementuak dituzten formei. Hiritarrak eta botere organoak arau juridikoen

menpeko diren Estatuak da zuzenbide estatua. Boterea erabiltzea ez da diskrezionala, hau da, legalitate printzipioan oinarritzen da, beste modu batean esanda, aurretik onetsi diren legeetan oinarritu behar da. Herritarra estatu-botereen organoen arbitrariorotasunetik babesteko helburuarekin. Estatu modernoak estatu absolutuaren forma politikoarekin jaio zen. Gero estatu liberal bezala konfiguratu eta gaur egun estatu sozial bezala agertzen da. Azken biak zuzenbide estatu dira, lehena ez.

Estatu absolutua -----> **Estatu liberala** ---->**Estatu soziala (Zuzenbide estatua)**

Osagaiak

Zuzenbide-estatu izena ematen zaio honako osagai hauek betetzen dituen estatuari:

- Oinarrizko eskubideen erabilera bermatzea (Oinarrizko eskubideen bermea): Estatuak gizabanakoaren eskubideen bermea ziurtatu behar du.
- Estatuaren botereen erabilera erdibanatua egotea organo eta erakunde burujabeen artean (Botere banaketa): Boterea ez da kontzentratu behar, hau da, notereen arteko oreka sistema egon behar da.
- Herri-borondatearen adierazgarri den legearen mende jartzea estatu-botereen ekintza oro (Legearen nagusitasuna): Legea estatuko beste ekintza guztien gainetik egon behar da eta hierarkia da printzipioaren indarra.
- Administrazioaren legalitatea: Administrazioak aurrez emaniko legeen arabera jokatu behar du eta administrazioaren erregimen juridiko bat egon behar da.

Superlegalitate formala eta materiala

Konstituzioa “lex superior” da. Konstituzionaltasun kontrola dago eta konstituzioaren araberrako interpretazioa egin behar da. Superlegalitate formala: konstituzioak botere publikoak nola sortu eta funtzionatzen duten ezartzen du (funtzionamendua, prozedurak...). Estatu botereak arautzen ditu Konstituzioak. Superlegalitate materiala: botere publikoek ezin dute Konstituzioan jasotako balore eta printzipioen aurka jo. Bestela konstituzio kontrako deklaratu daitezke.

Bilakaera historikoa

Oinarrizko eskubideen bermeen bilakaera

XVIII eta XIX mendeetan, Estatuak arlo pribatua babestu behar zuen (eskubide negatiboak ziren, soilik “ez zapaltzea”, “ez debekatzea”, “ez interbenitzea” exijitzen zutenak). Gaur egungo Konstituzioaren 15-29 artikulua. Eskubide politikoak zabalduz doaz ondoren; estatu demokratizatzen doa eta pertsona pribatuek arlo publikoan parte-hartzeko eskubidea dute. Gaur egungo Konstituzioaren 39-52 artikulua. Hauek Estatuaren Aurrekontuek baldintzatzen dituzte. XX. mendean, demokrazia ez da soilik formala izango, berme material batzuk behar dira. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak agertuko dira. Gaur egun, Konstituzioaren I. tituluan dauden eskubideek ez dute eraginkortasun bera. I. tituluko 2. kapituluaren 1. artikuluan daudenek botere publiko guztiak zuzenean lotesten dira, hau da, Konstituzioan aldarrikatzea nahiko da haien eraginkortasuna edozein epaileri eskatu ahal izateko. Hirugarren Kapituluaren 1. artikuluan daudenak epaile bati argudiatzeko, ordea, beharrezkoa da haiek garatzen dituen lege batean hala aurreikusita izana. Oinarrizko eskubideen aurkako ekintzei aurre egiteko, Konstituzioak babes-mekanismo batzuk ditu:

- 14-29. artikuluetan dauden eskubideak babesteko, bi helegite mota daude. Alde batetik, Jurisdikzio arruntaren lehentasun eta sumariotasun printzipioetan oinarriturik egiten den prozedura bat. Horri babes judiziala edo babes-helegite arrunta esaten zaio ere. Eskubide horiek babesteko, berriz, beste prozedura bat baliatzen da Konstituzio Auzitegian: Babes helegite konstituzionala. Horretaz gain, Espainiako Konstituzioak maila altuan bermatzen ditu eskubide hauek Konstituzioko 53.2 artikulua baliatua.
- II. kapituluko (30-38 artikulua) beste edozein eskubideren babesa lortzeko, epaitegietako prozedura arruntetara jo daiteke. Horretaz gain Espainiako Konstituzioak maila ertainean bermatzen ditu eskubide hauek Konstituzioko 53.1 artikulua baliatua.
- III. kapituluko (39-52 artikulua) irizpideak epaileari aurrean alegatu ahal izateko, berriz, horiek garatzen dituen lege bat behar da. Espainiako Konstituzioak maila baxuan bermatzen ditu eskubide hauek Konstituzioko 53.3 artikulua baliatua.

Botere banaketaren bilakaera

Estatu absolutuan ez zegoen botere banaketarik, Estatu liberalean bai, Locke eta Montesquieuren ideiak zabaldu zirelako. Estatuaren botere banaketa. Botereen arteko kolaborazioa ematen da sistema parlamentaristan eta banaketa zorrotzagoa, aldiz, sistema presidentzialistan.

Lege inperioaren bilakaera

Konstituzioa, dokumentu politiko izatetik arau juridiko nagusi izatera igaro zen. Legeen konstituzionaltasun kontrola eta Konstituzioaren zurruntasuna ematen da.

Botere banaketa

- Banaketa horizontala: legegilea (Gorteak), betearazlea (Gobernua) eta judiziala (epaileak). Hiru horien arteko eskumen-banaketa bermatzeaz eta banaketa horrek eragindako arazoez, berriz, Konstituzio Auzitegia arduratzen da.
- Banaketa bertikala: estatu-organo zentralaren eta autonomia-erkidegoen erakundeen artean. Konstituzio Auzitegiari dagokio eskumen-banaketa horren babesa eta banaketa horrek eragindako arazoak konpontzea.

Lege inperioa edo Legearen nagusitasuna: konstituzionalitate printzipioa (9.1) eta legalitate printzipioa (9.3)

Konstituzionaltasun printzipioa argi geratzen da Konstituzioaren 9.1 artikuluan. Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende daude. Era berean Konstituzioaren 9.3 artikulua Legalitate printzipioa arautzen du. Legalitate printzipioarekin batera beste batzuk aipatzen dira eta guztien bildumak egingo du posible arau baten konstituziozkotasuna:

- Arau-hierarkia: beheko lerrunetakoek goiko lerrunetakoetan esandakoa bete behar dute.
- Arauak publiko egitea: Arau bat indarrean sar dadin, beharrezkoa da hura argitaratzea, herritarrek ezagutzeko aukera izan dezaten. Horretarako, bai estatuak bai autonomia-erkidegoek egunkari ofizialak dituzte.
- Aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen

atzeraeraginik eza: herritarren aurkako arauak indarrean sartzen diren unetik aurrera izango dira eraginkor, eta inoiz ere ez une hori baino lehen. Esaterako, zigorrik ez zuen ekintza bati delitu-zigorra ezarri nahi izanez gero, arau bat sortu beharko da, eta arau hori sortzen denetik aurrera bakarrik izan daiteke eraginkor.

- Segurtasun juridikoa: arauak argiak izan behar dira, baldintzarik gabekoak, guztiok jakiteko zer den zilegi eta zer ez.
- Botere publikoen erantzukizuna: herri-agintariak erantzule dira zuzenbidetik at jarduteagatik, bereziki, debekatzen da bidegabekeriaz jardutea, hau da, legearen kontra edo gehiegikeria erabiliz.

9.2 artikulua berdintasun materialaz ari da. 14. artikulua (berdintasun formala) bereizkeria debekatzen du, baina, 9.2 artikulua bereizkuntza eskatzen du gizakien, gizalaba zein gizaseme, benetako berdintasuna lortzeko. Hori horrela, ez dugu inolako eskubide subjektiborik benetako berdintasuna lortzeko behar dugun bereizkuntzarik izateko. Bereizkiak izango gara legegileak erabakitzen duenean, bestela berdintasun formalaren eremuan gaude. Horretaz gain: Gorte Nagusiak, Konstituzio Auzitegia, Gobernua eta Administrazio Publikoa, eta botere judiziala, legearen menpe daude eta Espainiako Konstituzioari lotuta (97, 103.1 eta 117.1).

6. Gaia: Zuzenbidearen iturriak

Estatu batean aplikagarri diren arau juridikoak dagoen baliabide oro dira zuzenbidearen iturriak. Idatzizko zuzenbidea duten estatuetan normalean nazioarteko tratatuak, konstituzioak, legeak (izan estatalak nola autonomikoak), erregelamenduak... dira zuzenbidearen iturriak. Konstituzionalismoaren hastapenetan, arauen jatorriari egiten zion erreferentzia izan ere, arau horiek iturrien bidez ordenamendura batzen ziren. Beste modu batean esanda, ordenamendu juridiko jakin baten arabera, arau juridikoak sortzeko gai diren gertakari edota ekintzak dira zuzenbidearen iturriak. Beraz, kategoria normatiboei egingo zaie erreferentzia. Soilik iturri dira erga omnes eragina duten arauak. Inter partes eragina dutenak ez. Zuzenbide positiboan arauturik dago zeintzuk diren zuzenbidearen iturriak. Espainian Kode Zibileko 1.1 artikuluan dago arauturik zeintzuk diren zuzenbidearen iturriak, horretaz gain, Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua dio estatuaren eskumena dela zuzenbidearen iturriak zeintzuk diren finkatzea.

Legea sortzeko ohiko prozedura

Lege bat sortzeko, Parlamentuko legezko gehiengoak ganberan egon behar du (diputatu edo senatarien %50); baina erabakiak hartzerakoan, nahikoa izango da daudenen gehiengo sinplearekin. Lege bat egiteko ekimena: kongresua zein Senatuari, Gobernuari edo Autonomia Erkidegoko



legebiltzarrei dagokie; horiek bi kongresuetan aurkeztu behar dituzte haien proposamena. Gobernuak aurkezten dituenan, lege-egitasmo edo lege-proiektu esaten zaio proposamenari eta, Gobernuak proposatu duenez, lehentasuna izango du beste proposamen batzuen artean. Beste kasu guztietan, lege-proposamen izena ematen zaie proposamenei.

- I. fasea:
 - Prozesua Kongresuan hasten denean: Talde parlamentarioek, Gobernuak, Autonomia Erkidegoetako legebiltzarrek edo Herri Ekimenek aurkeztutako lege-proiektua (Gobernua) edo lege-proposamena (beste guztiek) Kongresuak proiektua aztertu eta onartzen badu lege-proposamena edo lege-proiektua Senatura pasatuko da.
 - Prozesua Senatuan hasten denean: Talde parlamentarioek lege-proposamena aurkeztu eta gero Senatuak lege-proposamena kontuan hartzen du eta Kongresuari bidaltzen dio, eztabaidatu eta azter dezan. Behin Kongresuak eztabaidatutakoa Senatura itzuliko da.
- II. fasea: I. faseko aukera bietarako berdin, baina Senatuan hasten da beti.
 - Lehenengo pausua: Behin proposamena aurkeztuta, Senatuak iritzia eman behar du, horretarako, bi hilabeteko epea du, betoa emateko, zuzenketak aurkezteko edo baietza emateko. Baietza ematen badu prozesua hemen bukatzen da.
 - Bigarren pausua: Kongresuaren bozketa ematen da. Kongresuak betoari aurre eginez, testua berriro onar dezake gehiengo absolutuz edo, betotik bi hilabete igarota, gehiengo sinplez. Senatuan zuzenketak aurkeztu badira, gehiengo sinplez onartu edo ezeztatuko dira.
 - Ondorioak: Lehenengo pausuan Senatuak baietza eman badu, edo Senatuaren betoa edo zuzenketak ikusita Kongresuaren amaierako bozketan testua onartzen bada, Estatuaren Buletinean argitaratuko da, eta vacatio legis* delakoa igarota, indarrean sartuko da. (*Lege bat onartzen denetik indarrean sartzen den arte iragan behar duen denbora tartea).

Legeak sortzeko prozedura bereziak

Zenbait kasutan, lege bat onartzeko prozedura berezia erabiltzen da. Esate baterako, nazioarteko itunak onartzeko; onartuz gero, nazioarteko ituna estatu barneko lege bihurtzen da. Horregatik, ituna onartzeko, Gorte Orokorren baimena behar da; oro har ganbera biena (94. artikulua). Horrek esan nahi du ganberetako batek betoa jar dezakeela eta besteak ezin duela bere kabuz betoa gainditu, lege arruntekin gertatzen denaren aurka. Nazioarteko itunaren testua ganbera bietatik pasatuko da, lehenengo Kongresutik eta gero Senatutik, eta, Senatuak itunari ezetz esanez gero, hau da betoa jarriz gero, batzorde misto bat osatuko da ganbera bietako zenbait ordezkariarekin. Batzordetik ateratako testua ganbera bieie aurkeztuko zaie eta, biek ala biek testu bera onartu ezean, Kongresuak izango du azken hitza.

Arauen baliozkotasuna, eraginkortasuna eta jadanekotasuna

- Baliozkotasuna: existentzia juridiko da. Arau bat baliozkoa izango da eskuduna den subjektuak, dagokion prozeduraz sortu duenean, dagokion arau formarekin, lerrun altuagokoak diren arauen edukia errespetatuz.
- Eraginkortasuna: arauak bere helburuak errealitatearekiko betetzen baditu adierazten du.
- Jadanekotasuna: arau juridiko baten existentziaren hasiera arau bezala, hau da, legea indarrean sartu denetik. Baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren arteko lotura da. Eraginkortasuna egon dadin beharrezkoak dira baliozkotasuna eta jadanekotasuna.

Lege lerruna duten zuzenbide iturriak

Lege mota asko daude eta bakoitzarentzako hainbat ezaugarri formal eta material aurreikusi ditu Konstituzioak. Lege mota guztiek arau-maila bera dute, baina, arautzen duten gaia nolakoa izan, halako eskakizun formalak ezartzen ditu Konstituzioak haiek onar ditzan.

- Lege organikoa: (81. artikulua) Lege mota berezia da, gai jakin batzuk arautzeko nahitaez erabili behar dena. Lege organikoa onartu, aldatu edo indargabetzeko eskakizun bereziak bete behar dira, arautzen dituen gaien garrantzia dela eta. Lege organikoek garatzen dute, besteak beste, funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak, Autonomia Estatutuak onesten dituztenak. Lege organikoa onartu, aldatu edo indargabetzeko beharrezkoa da egitasmo osoari buruzko amaierako bozketa bat egitea eta bozketa horretan Diputatuen Kongresuko botoen gehiengo absolutua lortzea.
- Lege arruntak: Beste guztiak dira. Lege organikoz arautu beharreko gaiak ezin dira lege arrunt baten bidez arautu, eta alderantziz, lege organiko bati espresuki erreserbatu ez zaizkion gai guztiak arautzeko lege arrunt bat egin beharko da. Gehiengo sinples onartzen dira. Esan daiteke, beraz, lege-maila duten arauen artean hierarkiarik ez dagoela.

Botere arteko lankidetzak da sistema parlamentarioaren ezaugarrietako bat, eta, lankidetzak hori bitarteko dela, Gobernuak bi arau sortzen ditu, lege indarra dutenak biek ere: dekretu legegilea eta lege-dekretua. Biek legeak beste indar dute, baina forma aldetik ez dira legeak. Lege indarra dute, gobernuak ematen dituelako arau horiek, berez Parlamentuari dagozkion eskumena edo gaitasunak erabiliz. Dekretu berezi horiek badute beste ezaugarri bat: Parlamentuak haien gain duen kontrola.

- Lege-dekretua: (86. artikulua). Premiazko eta ohiz kanpoko egoeratan, Gobernuak lege-maila duten arauak eman ditzake. Arau horiek probisonalak izango dira, gehienez 30 egunetarako emanak. Salbuespenezkoak direnez, baldintza ugariren mende bakarrik eman daitezke, premiazko eta ezohiko egoera batean (alarma-egoera, setio-egoera, salbuespen egoera) eta oso gai jakinei buruz: Lege Dekretuak ezin ditu Estatuaren oinarriko erakundeak ukitu, ez eta herritarren funtsezko eskubide eta betebeharrak ere; Autonomia Erkidegoen erregimena, hauteskunde-zuzenbidea eta aurrekontuak ere ezin ditu ukitu. Amaitzeko, denbora tarte jakin eta labur baterako dira. Tarte baterako direnez, Lege-dekretu batek iraun dezan, beharrezkoa da Diputatuen Kongresuak baliozkotzea.

- Dekretu-legegilea: Gobernuaren ekintza arau-emailea da. Ekintza arau-emaile horrek sortutako arauak legeen balioa eta indarra dute, Gorte Orokorrek gobernuari emandako eskuordetza baten bidez. Parlamentuaren eta gobernuaren arteko elkarlana dela esan daiteke. Gorte Orokorrek espresuki azalduko dizkiote Gobernuari ematen zaion gaitasunaren nondik norakoak, beraz, dekretu legegileak eskuordetza-legearen mende geratuko dira. Beste modu batean esanda, Gorteak Gobernuari eskatzen dio lege bat ateratzeko. Eskuordetza-legeak bi motatakoak izan daitezke, alde batetik, oinarri legeak, eskuordetzaren helburua testu artikulatu bat sortzea bada, Gorte Orokorrek lege batean adieraziko dituzte erabakirik garrantzitsuenak eta ondoren Gobernuari esango diote oinarri horietatik testu artikulatu bat sortzeko, eta bestetik, lege arruntak, zenbait lege-testu bakar batean bildu nahi izanez gero, eskuordetza-lege emango da hori zehazteko
- Erregelamenduak: Gobernuaren eta Gorte Nagusien erregelamenduen arteko ezberdintasunak. Gobernuak ematen duen arau xedapen bat da. Estatuaren hiru botereen banaketa antolatzerakoan, Konstituzioak Gobernuari botere exekutibo edo betearazlea ematen dio eta, ahalmen erregelamendugilea da hari dagozkion gaitasunetako bat. Legeak betearaztea helburu badute ere, hiru erregelamendu mota bereizten dira:
 - Exekutiboak: zuzenean eta zehazki lege bati edo lege baten atalen bati atxikitzen zaizkionak eta lege hori garatzea helburu dutenak.
 - Independentiak: lege baten betearaztea helburu zuzena ez denean, esate baterako, herri-administrazioako erakunderen bat antolatzen dutenean. Erakunde horien helburua, zeharkakoa eta arrunta bada ere, legeak betearaztea izango da beti.
 - Beharrezkoak: premia egoera batean emandako erregelamenduak, behin behinekoak direnak, eta batzuetan baita ilegalak ere.

Erregelamenduen kontrola ez dagokio Konstituzio Auzitegiari. Konstituzio Auzitegiak erregelamendu bakan batzuk kontrolatzen ditu: ganbera bakoitzak zeinek bererentzako emandako erregelamenduak dira. Hortaz, erregelamenduen ahalmen titularitatea Gobernuak dauka (97. artikulua)

Lege erreserbaren printzipioa ematen da, historikoki eskubide eta askatasunak gordetzeko bitarteko bat zen, Parlamentuak zuena Erregearen aurrean. Berez, burgesiaren lanabes bat zen, gaur egun, ordea, bai Gobernuak eta bai Parlamentuak demokratikoak dira, baina parlamentuan gutxiengoak ordezkaturik daude, eta horiek aukera dute arauaren sorrera prozesuan parte-hartzeko. Hala ere, lege erreserba ez da Parlamentu erreserba gure sistema juridikoan, lege organikoekin ez bada eta lege erreserbak ez du eragozten erregelamendu bidez garatzea legean jaso ez dena. Legean funtsezkoena dena jasotzen da.

Legearen nagusitasuna printzipioa estuki lotzen zaio erregelamenduari, izan ere, erregelamenduaren helburu nagusia legea aplikatzea da.

7. Gaia: Oinarrizko eskubideak eta askatasunak

Oinarrizko eskubideen kontzeptua

Oinarrizko eskubideak zuzenbide-estatuaren barne-muineko elementuak dira. Oinarrizko eskubideak aitortzen eta bermatzen diren lekuetan bakarrik izaten da Zuzenbide-estatu bat, eta Zuzenbide-estatu ezarrita dagoen tokian bakarrik esan daiteke oinarrizko eskubideak eraginkorrak direla. Oinarrizko edo funtsezko esaten zaie gaur egungo sistema juridiko eta politikoa eraikitzeko oinarrizko elementuak direlako. Oinarrizko eskubideei buruz hitz egiten dugunean, giza eskubide batzuk positibo edo onuragarritzat jo izan direla esaten ari gara, hau da, konstituzioei erantsi zaizkiela. Konstituzioek berme-neurri bereziak eman dizkiete eskubide horiei, Estatuari aurre egiteko. Estatu konstituzional baten funtsezko elementu dira eta Konstituzioaren atal dogmatikoaren nukleo esentziala osatzen dute. Bobbio: “Konstituzio batean herritar guzti guztiei, edozein baldintza dela ere, aitortzen zaizkien eskubideak” dira oinarrizko eskubide. Giza behar oinarrizko eta zentrali erantzuna ematen diete. Ez dago irizpide unibertsalik eskubide oinarrizko izateko, oinarrizkoak dira zuzenbideak hala markatzen dituenak, herrialde batzuetan Konstituzioan jasotzen dira, modu zabalean (Alemania, Portugal, Frantzia), beste batzuetan testu historikoetara jotzen da (Frantzia) eta beste batzuetan idatzi gabeko berme bezala jasotzen dira, beren zuzenbidea ohituran oinarritzen delako (Erresuma Batua). Iritzi korrante ezberdinak daude oinarrizko eskubideen inguruan:

- Lusnaturalista: pertsonak pertsona direlako dituzte eskubideak, bere duintasunari lotuak, eta Estatuaren aurrekoak. Kritika: Baloreetan geratzeko arriskua dago, eta gainera, historikoki konprobatu da eskubide hauen zenbaki eta edukia aldatu egin dela.
- Eszeptizismoa: ez dago giza eskubide unibertsalik, mundu mailan aplikagarria direnik.
- Positibismoa: oinarrizko eskubide dira botereak hala izendatzen dituenak. Argia da metodo hau, baina orduan edozein boteredunek edozein modutan finka dezake.

Oinarrizko eskubideen izaera

Helburu axiologikoa betetzen dute:

- Subjetiboki: gizabakoen eskubideak dira. Ez bakarrik esangura hertsian herritarren eskubideak direlako; baizik eta status juridiko edo izanaren esparru baten askatasuna bermatzen dutelako.
- Objektiboki: giza elkartearen elkarbizitza oinarritzen duten balioak adierazten dituzte. Konstituziogilearen erabakiz, erakunde juridiko eta politikoen multzoa eratu behar duen balio-sistemaren adierazpenak juridikoak dira eskubide horiek, hau da, ordena juridikoaren eta gizarte bakearen oinarri, Konstituzioaren 10. artikuluan aldarrikatzen denez,
Beraz, oinarrizko eskubideak ez dira soilik estatuari edota beste herritarrei jarritako mugak, baizik eta, positiboki kontsideratuta, balore eta helburu multzo bat dira, giza-elkarbizitza eta estatu-botereen ekinbidea markatzen dutenak.

Oinarrizko eskubideen ezaugarriak

Oinarrizko eskubideek sistema bat osatzen dute, hiru ezaugarritan oinarriturik:

- Interdependentzia: denek sustantzia bera konpartitzen dute: giza duintasunaren eta

askatasunaren errespetua ordena sozial justu batean.

- Osagarritasuna: Batzuk beste batzuen osagarri dira. Ez dira konpartimendu estankoak. Adibidez: Adierazpen askatasuna askatasun ideologikoarekin lotzen da.
- Berdintasun juridikoa: ikuspegi tekniko-juridiko batetik, denek dute garrantzi maila bera.

Oinarrizko eskubideen sailkapena

Ikuspegi material batetik:

- Pertsona fisikoaren eskubide eta askatasunak: hirugarren pertsona baten baimendu gabeko ezein ekintza debekatzen dute. Askatasun pertsonala, bizitza, intimitatea ...
- Pentsamendu askatasunak: sinesmen askatasuna, erlijio eta kultu askatasuna, adierazpen eta komunikazio askatasuna, katedra askatasuna, irakaste askatasuna, sorkuntza literario, zientifiko, artistiko eta teknikoa...
- Eskubide eta askatasun kolektiboak edo zibil-politikoak (eskubide zibil eta politikoak): hiritar bezala dagozkigunak dira: sufragio aktibo eta pasiboa, asoziazio, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, eskatzeko eskubidea, herri ekimen legegilea...
- Askatasun eta eskubide ekonomiko-sozialak: tradizionalak direnak (jabetza, enpresa askatasuna), eta sozialismotik gehitutakoak (lan eskubidea, greba, sindikatu, etxebizitza duin, ingurumena, osasuna, gizarte segurantza...).

Bilakaera historikoa

XVIII eta XIX mendeetan, Estatuak arlo pribatua babestu behar zuen (eskubide negatiboak ziren, soilik “ez zapaltzea”, “ez debekatzeko”, “ez interbenitzea” exijitzen zutenak). Gaur egungo Konstituzioaren 15-29 artikulua. Eskubide politikoak zabalduz doaz ondoren; estatua demokratizatzen doa eta pertsona pribatuek arlo publikoan parte-hartzeko eskubidea dute. Gaur egungo Konstituzioaren 39-52 artikulua. Hauek Estatuko Aurrekontuek baldintzatzen dituzte. XX. mendean, demokrazia ez da soilik formala izango, berme material batzuk behar dira. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak agertuko dira.

Oinarrizko eskubideen eta askatasunen aitortza konstituzionalaren ezaugarriak

Oinarrizko eskubideen aitortza Konstituzioaren Hitzaurrean jasotzen da, bertan, baloreak, zuzenbide-estatu demokratiko eta soziala eta giza eskubideak aipatzen dira. Konstituzioaren 1.1 artikulua hori berresten du eta I. tituluan (10-55 artikulua) jasotzen dira oinarrizko eskubideak, toki pribilegiatua emanez eta bermeak aurreikusiz.

- I. titularen egitura formala:
 - 10. artikuluan hasten da eta 10.1 artikulua norberaren balorea aitortu egiten du, horretaz gain errespetatua izateko eskubidea ere adierazten du, eta amaitzeko, aukera ematen du norberak bere bizitza egiteko legearen aurka eta besten eskubideen aurka ez doan bitartean. 10.2 artikuluan Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalarekin bat eginez interpretatu beharra ezartzen da.
 - Lehen kapitulua (11-13 artikulua) espainolen eta atzerritarren estatusari mugatzen da. Naziotasuna, adin nagusitasuna eta atzerritarren eskubideak ere aitortzen dira.
 - Bigarren kapitulua (14-38 artikulua) legearen aurrean denok berdina garelako

esanez hasten da, ondoren bitan zatitzen, alde batetik, oinarrizko eskubideak eta askatasunak (15-29 artikulua) eta, bestetik, hiritarraren eskubide eta betebeharrak (30-38 artikulua).

- Hirugarren kapituluak (39-52 artikulua) politika sozial eta ekonomikoaren gida oinarriez ari da.
- Laugarren kapituluak (53-54 artikulua) eskubideen bermeaz ari da, eskubideek babes maila ezberdina dutelako.
- Bosgarren kapituluak (55. artikulua) eskubideen eta askatasunen suspentsioa adierazten du.

Oinarrizko eskubideen eraginkortasuna eta babesa			
	Eraginkortasuna	Auzitegi arruntetan	Auzitegi konstituzionalean
14 eta 15-29 artikulua	Zuzenean aplikagarriak	Babes berezia judizial	Babes helegite konstituzionala, behin beste baliabideak agortu ondoren
30-38 artikulua	Zuzenean aplikagarriak	Babes arrunta judizial	<ul style="list-style-type: none"> ● 30. artikuluko kontzientzi eragozpenak ● Besteak ez
39-52 artikulua	Garatzen dituen lege bat behar dute	Garatzen dituen legerik balego, babes judizial arrunta	Zuzenean ez

Eskubide multzoak Espainiako Konstituzioan

- Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak (15-29 artikulua + 14. artikulua [Berdintasun formal]):
 - Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
 - Askatasun ideologiko, erlijioso eta kulturala izateko eskubidea
 - Askatasun eta segurtasun pertsonala izateko eskubidea
 - Ohorea, intimitatea eta norbere irudia babesteko eskubidea
 - Adierazpen-askatasuna eta informazio-eskubidea
 - Batzartzeko eskubidea
 - Babes judiziala

- Hezkuntza eskubidea
- Greba eskubidea
- Askatasun sindikala
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak (30-38 artikulua)
 - Soldadutza ez egiteko kontzientzia-eragozpen eskubidea
 - Ezkontza-eskubidea
 - Jabetza pribatua eta oinordetza izateko eskubidea
 - Lan egiteko beharra eta eskubidea
 - Negoziatio kolektiborako eskubidea
- Gizarte eta ekonomia-politiken printzipio zuzendariak (39-52 artikulua). Klausula sozialak eta prestazio eskubideak biltzen ditu Espainiako Konstituzioak. Klausula sozialek, batetik, botere publikoak gaitzen dituzte bizitza sozialean parte hartzeko; eta, bestetik, Estatuaren izaera soziala islatzen dute. Hau da, xedapen horietan aurkitzen du legezkontasuna eta justifikazioa Estatuaren botereen esku hartzeak. Horiekin batera, Prestazio-eskubideak ditugu, eta horien helburua da herritar guztiei gutxienezko bizimaila bermatzea. Eskubide horien eraginkortasuna baldintzaturik dago, helburu hori lortzeko dauden baliabide materialen arabera. Prestazio-eskubideen babesa, ordea, askatasunen eta politikaren munduko eskubideena baino ahulagoa da.
 - Estatuak bere gain hartzen ditu familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa.
 - Garapen sozial eta ekonomikoaren aldeko baldintzak sortzeko lan egingo dute botere publikoek, bai eta errenta eskualdeen eta pertsonen arabera era orekatuan banatzeko ere
 - Segurantzaren sistema atxikitzea
 - Osasuna babesteko eskubidea
 - Kultura helarazteko eta ikerketarako laguntza
 - Ingurumen egokia izateko eskubidea
 - Ondare historiko-artistikoa babestea
 - Etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea
 - Garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean gazteen parte-hartzea ahalbidetzeko konpromisoa
 - Adintsuen baliabide-ekonomikoak babestea
 - Kontsumitzaileak babestea

EK Art.	Bermeak EK-n	Babes Maila	Babes Judiziala Auzitegi arruntean	Auzitegi konstituzionala
----------------	---------------------	--------------------	---	---------------------------------

14 eta 15-29	53.1	Normala/ Ertaina	Arrunta	Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a.
14 eta 15-29	53.2	Altua	Berezia	Babes helegitea 161.1.b
30-38	53.1	Normala/ ertaina	Arrunta	Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a
39-52	53.3.	Baxua	Arrunta	ez

Eskubideen babes mailak

- Babes maila ertaina edo normala: Espainiako Konstituzioaren 53.1 artikulua. 14-38 artikuluetan aitortutako eskubide eta askatasunek lotesten dituzte botere publiko guztiak. Eskubide eta askatasun horiek egikaritzea legez bakarrik arautu daiteke, betiere haien oinarritzko funtsa errespetatuz; kasu honetan, 161.1.a) artikulua dionari jarraituz babestuko dira eskubide horiek. (Espainiako Konstituzioaren 161. artikulua arautzen du lege-arauen eta lege-maila arauari aurkeztu dakiekeen konstituzionaltasunik ezeko helegitea). Eskubide hauek zuzenean aplikagarriak dira, horrek esan nahi du, eskubide horiek aplikatu ahal izateko ez dela behar Konstituzioak dioena garatzen duen beste legerik. Auzitegi arruntetan babes judizial arrunta dauka.
- Babes maila altua: Espainiako Konstituzioaren 53.2 artikulua. Edozein herritarrek eska dezake, 14-29 artikuluetan aitortu izan diren eskubideen babesa. Zuzenean aplikagarriak dira. Bai Auzitegi arruntetan, lehentasun eta sumariotasun irizpideetan funtsaturiko prozedura baten bitartez; bai Auzitegi Konstituzionalean, babes-helegitearen bidez (161.1.b) artikulua). Azken baliabide horrek, bestalde, 30. artikuluan aitortu den kontzientzia-eragozpen eskubidea babesteko ere balioko du.
- Babes maila baxua: Espainiako Konstituzioaren 53.3 artikulua. 39-52 artikuluetan aitortu diren eskubideak aitortu, errespetatu eta babestu egin behar dira. eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horiek izango dituzte kontuan. Jurisdikzio arruntetan halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea. Ez da zuzenean aplikagarria eta Auzitegi Arruntetan soilik garatzen duen legerik egongo balitz babestuko litzateke eta Auzitegi Konstituzionalean ez da babestuko.

Oinarrizko eskubideen eta askatasunen mugak

- Mugak: oinarrizko eskubideak, beste eskubide subjektiboen antzera, ez dira eskubide absolutuak, hau da, ezin dira neurrik gabe erabili. Nahiz eta oinarrizkotasun hori eduki, eskubide horien erabilera mugatuta dago barnetik eta kanpotik:
 - Barne-mugak: eskubidearen edukiak berak inposatutako mugak dira. Eskubide bat bere mugetatik kanpo erabiltzeak eskubide horren erabilera bidegabea dakar.
 - Kanpo mugak: muga horietatik garrantzitsuena Konstituzioak berak bilatzen du: besteen eskubideek merezi duten begirunea, hau da, baten eskubidea beste baten eskubide legitimo edo legezkoa hasten den lekuan bukatzen da. Ordenamenduak ere zenbait muga jartzen dizkio eskubide baten erabilerari.

Oinarrizko eskubideen eta askatasunen interpretazioa

Ezin da bistatik galdu ordenamendu juridikoan paper zentrala dutela. Arau guztiak interpretatu behar dira Konstituzioan jasotakoaren arabera, baina bereziki, oinarrizko eskubide eta askatasunei eragiten dietenak (Auzitegi Konstituzionalaren arabera). Edozein kasu, interpretazioan zalantza badago, beti eskubideari indar gehien ematen dion interpretazioa lehenetsi behar da. Legegileak ezartzen dituen mugapenak beti ikuspegi murriztuarekin interpretatu behar dira. 10.1 artikulua ezarritakoarekin bat eginez interpretatu behar da eta 10.2 errespetatuz, Giza eskubideak arautzen dituzten nazioarteko tratatuen arabera interpretatu behar da.

Oinarrizko eskubideen eta askatasunen baldintzak

Oinarrizko eskubideen eta askatasunak eta Konstituzioak jasotzen dituen bermeak, ez dira herritar guztientzat berdinak, baina berez pertsona guztiek daukate pertsonalitate juridikoa (subjektu baten ahalmena eskubide eta betebeharrak izateko). Eskubideak erabiltzeko ahalmena bitan zatitu ahalko litzakete, gauza bat da “orokorrean” eskubide eta betebeharrak izateko ahalmena, eta beste bat, “zehatzean” egoera konkretu batean eskubide horiek erabiltzeko ahalmena izatea, beraz, eskubide osoen titularrak diren herritarrak (pertsonalitate juridiko osoa) eta mugapenak dituztenak (atzerritarrak, eskubide politikoekiko) ezberdindu behar dira. Konstituzioak lau datu ezberdintzen ditu:

- Naziotasuna: Konstituzioaren 11. artikulua. Estatu batek duen herria osatzen duten herritarren eta Estatua zein ordenamenduaren arteko lotura adierazten du. Naziotasuna beharrezko baldintza da legeak eta Konstituzioak ezartzen dituen eskubide eta askatasun guztiak ematen dituen hiritar statusa lortzeko. Beraz, beharrezko baldintza da mugarik gabe eskubideen jabe izateko eta horiek mugapenik gabe erabiltzeko. Atzerritarrek, nagusiki, parte-hartze politikorako eskubideak dituzte mugatuak. Eta baita kargu eta funtzio publikoetarako sarrera. Baimendua dago naziotasun bikoitza.
- Adin nagusitasuna: Konstituzioaren 12. artikulua zehazten du adin nagusitasuna. Konstituzioaren arabera 18 urterekin eskubideez gozatzeko aukera egongo da. Halere, batzutan, eskubideak erabiltzeko ahalmena lehenago onartzen da Kode Zibilean.
- Atzerritartasuna: Atzerritarrak dira naziotasun espainolik ez dutenak. Konstituzioan, 13 artikulua zehazten du: 13.1: atzerritarrak eskubideak gozatzeko dituzte, lege eta

tratatuaren arabera. 13.2: ez dute eskubide politikorik, salbu, udal hauteskundeetarako sufragio aktibo eta pasiboa. Hala ere, 10.2 artikulua arabera interpretatuko da. Kasu honetan, Auzitegi Konstituzionalak, eskubide politikoak bakarrik baztertu ditu, horretaz gain, eduki esentziala errespetatu behar du. Giza duintasunetik eratorzen diren eskubideak errespetatu behar ditu.

- Estradizioa eta babes eskaera: (13.3 artikulua) estatu batek beste baten eskuetan pertsona bat uztea, epaitua izateko hala zigorra betetzeko. Tratatu eta legeen arabera, eta beti ere erreziprozitate printzipioa errespetatuz estradizioetan delitu politikoak salbuetsita daude. Europar batasunean euroagindua erabiltzen da prozesu azkarragoa delako.

8. Gaia: Estatu Estatu sozial bezala

Estatuaren bertsio modernizatu bat da, jatorri liberala duena, kapitalista motako egitura ekonomiko eta soziala duena, eta I eta II Mundu Gerren artean osatzen joan zena. Estatu sozialak honako adiera hau du: Estatuak hartzen du zenbait ondasun sozialen kudeatzaile- eta administrazio- izaera, gizartean sortzen diren ezberdintasun sozial eta ekonomikoak zuzentzeko asmoz. Ezberdintasun sozial eta ekonomikoaren zuzentze hori, zerbitzu eta prestazio batzuk ziurtatuz egiten du Estatuak. Horien bitartez, gutxieneko bizi-maila bermatzen die herritarrei. Izen ezberdinak jasotzen ditu: estatu liberal-demokratiko aurreratua, ongizate estatu, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa... Honako ezaugarri hauek ditu:

- Ekonomian esku-hartzea
- Gizarte laguntzak eta zerbitzuak
- Ekonomia mistoa
- Eskubide sozialen eskagarritasun juridikoa
- Ordezkaritza demokrazia

Estatu soziala 1978ko Konstituzioan

Estatu sozialak honako adiera hau du: Estatuak hartzen du zenbait ondasun sozialen kudeatzaile- eta administrazio- izaera, gizartean sortzen diren ezberdintasun sozial eta ekonomikoak zuzentzeko asmoz. Helburu horren bila, gaur egun, estatu guztien konstituzioetan ageri dira bizitza ekonomiko eta sozialean Estatuaren parte-hartzea aurreikusten duten xedapenak. Xedapen horiek oinarritzeko lau gako dituzte helburu:

- Herritarren arteko harremanak arautzea (hau da, estatuaren interbentzionismoa kontratatzeke autonomia): Gizabanakoen arteko harremanek hartzen duten forma tipikoa kontratua da. Kontratatzeko askatasunari zenbait muga jarri zitzaizkion estatu askotan, ahulenaren egoera indartzeko asmoz:
 - Klausula bidegabeak debekatu ziren, hau da, kontratu-egileetako bati gehiegizko prestazio bat eskatzen zioten horiek.
 - Beste zenbait klausulak nahitaez kontratuaren egon behar zutela adierazi zen. Horiek, noski, ahulenaren aldeko eskubide edo bermeak adierazten zituzten; hala, besteak beste, estatu guztietako legerietan finkatu ziren lan-harreman orotarako eduki minimo eta nahitaezko batzuk.

II. Mundu Gerraren ondoren, konstituzio-testuek espresuki aurreikusi dituzte Estatuaren esku-sartze horiek. Hala, botere publikoei eman diete gaitasuna, sektore sozial jakin batzuk defendatzeko edota zenbait ondasun babesteko. Testuinguru horretan koka ditzakegu Espainiako Konstituzioaren klausula sozialak, horiek botere publikoak gaitzen baitituzte bizitza sozialean parte hartzeko: Espainiako Konstituzioaren 47. eta 51. artikulua. Klausula horiek ez dute aplikagarritasun zuzenik; hau da, horietatik ez dira zuzenean eskubideak eratortzen. Ahalbide horrekin batera, konstituzio-testuek erakunde jakin batzuk aurreikusi dituzte, negoziazio kolektiboaz ardura daitezen. Sindikatuak eta ugazaben erakundeak dira (7., 28. eta 37. artikulua). Erakunde horiek beren talde-interesen defentsarako tresna eta arma tipikoak erabil ditzakete, hala nola: greba (28.2. artikulua.) edo gainerako gatazka kolektiboko neurriak (37.2. artikulua). Azkenik, hitzarmen kolektiboei indar loteslea ere ematen die. Horrela, subjektu pribatuen arteko akordio bat, hau da, langileen eta enpresarien ordezkarien arteko akordio bat, izango da gizabanakoen autonomiaren muga.

- Prestazio-eskubideak eskaintzea: gaur egungo konstituzionalismo sozialaren ezaugarrietako bat da botere publikoei egiten zaien agindua, herritarrei emateko prestazio batzuk finkatzeko. Prestazio-eskubideak diren heinean, eraginkortasuna baldintzaturik dute, helburu hori lortzeko dauden baliabide materialen arabera. Prestazio-eskubideen babesa, dena den, askatasunen eta politika eskubideen babesa baino ahulagoa da. Hala eta guztiz ere, ondorio zuzenak dituzte: Efektu interpretatzailea dute eta botere publikoen ekintza mugatzen dute.
- Jabetza pribatuaren estatutuak arautzea: Espainiako Konstituzioak jabetza eta oinordetza-eskubideak aitortzen ditu, eta Legeak mugatuko duela eskubide horien edukia duten gizarte-funtzioa kontuan harturik.
- Botere publikoek subjektu ekonomiko gisa egikaritzen duten jardura arautzea.

Espainiako Konstituzioko eskubide sozialek ez dute eraginkortasun maila bera (53.1/2/3 artikulua...).

9. Gaia: Gorte Nagusiak

Gorte Orokorren posizio konstituzionala

Gorte Orokorrak gobernu sistema parlamentarioan: Parlamentua (Gorte Orokorrak) ordezkari-tza instituzional nagusia da. Sistema demokratiko guztietan ezinbestekoa izateaz gain, kontuan hartu behar dugu Monarkia parlamentarioetan Parlamentua dela gobernu formaren muinetako bat. Bere ezaugarririk berezkoena da ordezkari-tza-erakundea izatea; hau da, bere ordezkariak bozkatze unibertsalaren bidez aukeratzen direla. Estatuaren eta gizartearen arteko lotura izatea dagokio, eta hain da garrantzitsua non sistema konstituzionalistetan Estatuaren ahalmen garrantzitsuenetako bat baitagokio: ahalmen legegilea. Historikoki, Frantzian, subiranotasun nazionala soilik bere ordezkarien bidez existitu zitekeen, eta herritarrik prestatuenek garatzen zuten (sufragio murriztua). Sufragio unibertsalarekin eta herri subiranotasunarekin ordezkari-tza instituzioak demokratizatu egin ziren. Eta gaur egun ordezkari-tzak funtsezko izaten jarraitzen du, baina ez da bide bakarra

herritarrek dutena arazo publikoetan parte hartzeko. Espainiako Konstituzioak parlamentu bikamerala du, ganberabikotasun kontzeptua. Espainiako Konstituzioaren 66. artikulua xedatutakoaren arabera, Gorte Orokor edo Nagusien ezaugarriak handiena ganberabikotasuna da, bi ganberak osatzen dituzte Estatuko Gorte Orokorrak: Diputatuen Kongresuak eta Senatuak. Kongresuari dagokio Gobernuko presidentearen inbestidura (99. artikulua), horrek ematen dio zentralitatea Kongresuari. Sistema bikameral hori ez da orekatua, ganbera bakoitzari bere funtzioak esleitu zaizkiolako. Kongresuan, inbestiduraz gain, lege-proiektuak hasten dira eta presidenteari referendum kontsultiboen baimena ematen dio (92. artikulua). Kongresuak Senatuak baino garrantzi handiagoa dauka. Senatuak, aldiz, Kongresuak egindakoa berretsi, emendakinak egin edo betoa jartzen du, kongresuak altxa dezake beto hori. Zentsura eta konfiantza mozioetan ez du parte-hartzen.

Gorte Orokorren hautaketa eta osaketa

Espainiako Konstituzionalismoan gorteek bi ganbera izan dituzte, 1812an eta 1931n izan ezik. Konstituzioaren arabera instituzio iraunkorrak dira eta agintaldi tenporala dute, “modu askean hautatuak baitira aldizkako hauteskundeetan” (23.1. artikulua), lau urtetarako. Parlamentarien estatutua lortzeko, lehenik eta behin, pertsona batek hautatua izan behar du. Herritar guztiak ez dira hautagarriak, zenbait hautaezintasun-kausa aipatzen ditu Hauteskundearen Erregimen Orokorra arautzen duen lege Organikoak. Besteak beste, errege-familiako kide izatea, epaile edo magistratu izatea edota Indar Armatuak zein Segurtasun Indarretako Gorputzetako kide izatea. Hautagarri izanik, hauteskundeetan hautatua izanez gero, bigarren eskakizun bat bete behar da parlamentari izateko, hau da, bateraezintasun-kausaren bat ez edukitzea. Parlamentari-izaerarekin bateraezina den kausaren batean buru-belarri sartuta ez egotea. Senatuko kide izanez gero, pertsona hori ezin izango da Kongresuko kide. Bi baldintza horiek beteta, oraindik ere beste eskakizun bat bete behar da: Konstituzioa onartzeko zina edo promesa.

Kongresuaren antolaketa

Espainiako Konstituzioak dio 300-400 kide artean izango dituela, gaur egun 350 ditu. Probintzia edo barrutiak proportzionalki hautatuak izaten dira, Ceuta eta Melilla izan ezin, hauek diputatu bana hautatzen dute. Probintzia bakoitzak gutxienez bi diputatu hautatzen dira eta D'Hont sistema erabiltzen da eserlekuak banatzeko.

Senatuaren antolaketa

266 senatarik osatzen dute eta horiek aukeratzeko bi modu daude: barrutien bidez edo parlamentu autonomikoen bidez. Azken hauetan, senatari bat hautatzen da milioi bat biztanleko. Probintzia bakoitzak lau senatari hautatzen ditu, irla handiek (Tenerife, Kanaria Handia eta Mallorca) hiruna senatari eta irla txikiak senatari bana hautatzen dituzte, Ceuta eta Melillak bina senatari hautatzen dituzte. Eserlekuak banatzeko, sistema maioritarioa duten zerrenda irekietan, gutxiengoaren ordezkariak bermatzen da.

Autonomia parlamentarioa

Legebiltzarrak duen ahalmena bere burua arautu eta kudeatzeko da autonomia parlamentarioa. Espainiako Konstituzioaren 72. artikulua Ganberen barne erregelak ezartzen ditu:

- Ganberen funtzionamendu erregelamenduak onartzen dituzte (72.1 artikulua): Gehiengo absolutua behar dira eta helburua ganbera bakoitzaren auto-organizazioa da. Lege proposamen bezala tramitatzen da, beraz, gobernuak ez du parte hartzerik. Ondoren, ohiko prozedura legegilea jarraitzen da. Auzitegi Konstituzionalaren arabera, lege mailako araua da, erregelamendu bereziak dira. Konstituzionaltasun kontrola egiteko balio dute. Bere interprete gorenari Ganberako Presidentea da.
- Ganberen presidentek eta mahaiak hautatzen dituzte
- Ganberen aurrekontuak ezartzen dituzte.

Historikoki pribilegio bat izan da, exekutiboaren aurrean eta baita botere judizialaren aurrean ere.

Subjektu parlamentarioak: legebiltzarkideak eta legebiltzar taldeak

Legebiltzarkideak eta beraien estatutu juridikoa

- Hautapen baldintzak eta bateraezintasunak
 - Hautagai debekurik ez duten herritar espainolak, adinez nagusi direnak
 - Errege familiako kideak, Auzitegi Konstituzionaleko epaileak, Arartekoa, epaile eta fiskalak, militarrek eta poliziak, hauteskunde batzordeko kideak eta sententzia judizial irmo batean zigor hori dutenak. Baita ere atzerri-estatu batean kargu bat dutenak edo Autonomia Erkidegoetako gobernuetako kideek ezin dute parlamentariak izan.
 - Inkompatibilitatea: kargu bat ala bestearen artean hautatu beharko da. Ez badu hautaketa egiten, eserlekuari uko egiten diola aurreikusten da. Ezin da parlamentari autonomiko eta diputatu izan; eta une berean kongresuko eta senatuko kide izan.
- Parlamentari karguaren hartzea, suspentsioa eta galera
 - Kargua hartzeko: hauteskunde administrazioak ematen dio kredentziala, horren ostean, parlamentariaren aktibitate eta ondasunen aurkezpena egiten da eta amaitzeko Konstituzioaren zina egiten dute.
 - Karguaren galera: hautaketa bertan behera uzten duen epai irmoa da. Kargu publikorako inhabilitazio zigorra. Heriotza; ezgaitasuna, betiere, epai judizialaren bidez; agintaldia bukatu delako, edota uko egin zaiolako.
 - Karguaren suspentsioa: behin behineko espetxealdi kasuan edota inhabilitazio zigorra parlamentariaren agintaldia baino laburragoa bada.
- Parlamentarien eskubide eta betebeharrak
 - Eskubideak: soldata izateko eskubidea, pleno eta batzordeetara joateko eskubidea eta informazio izan eta eskatzeko eskubidea.
 - Betebeharrak: pleno eta batzordeetara joateko betebeharra; ordena, kortesia eta disziplina parlamentarioa gordetzeko betebeharra eta harreman ekonomikoetan parlamentari izaeraren berri ez emateko betebeharra.
- Parlamentarien pribilegio edo prerrogatibak

Konstituzioak parlamentarien zenbait abantaila jasotzen ditu:

- Bortxaezintasuna: abantaila horrek galarazten du parlamentariaren kontrako

edozein prozedura, prozedura horretan parlamentariak beren funtzioetan azaldutako iritzi edo adierazpenak epaitu nahi direnean. Edozein motatako zigor prozedura galarazten du.

- Inmunitatea: abantaila horrek parlamentaria babesten du zuzenean atxilotua izatetik edo askatasun gabetzea dakarkion beste edozein neurri motatetik.
- Foru-berezia edo aforamendua: abantaila horrek zera esan nahi du: diputatu eta senatarien kontrako prozesu penalak aditzeko Auzitegi Gorena dela organo eskuduna. Autonomia Erkidegoetan legebiltzarreko kideen kontrako auziez aditzeko, berriz, dagokion Autonomia-Erkidegoetako Justizia Auzitegi Nagusia izango da eskudun.

Legebiltzar taldeak

Parlamentuaren egunerokoa razionalitzearen ondorio dira talde parlamentarioak. Ganbera baten kideen talde-batasuna, beren alderdi politikoaren borondatea adierazten dutenak dira.

- Osaketa: Gutxienez, 15 diputatu edo 10 senatari behar dira talde bat sortzeko. Salbuespenak daude: Kongresuan, 5 diputatu estatuko bozen %5a adierazten dutenak, edo 5 diputatu beren barrutiko bozen %15a adierazten dutenak. Ohikoa izaten da parlamentarioak edo bozak maileguan uztea. Inora batu ezin diren parlamentariak talde mistora pasatzen dira.
- Amaiera: Talde parlamentarioaren desagertzea hiru arrazoiengatik izan daiteke:
 - Taldeak berak borondatez erabakitzen badu
 - Talde murriztu delako.
 - Erabaki judizial batek behartuta.
- Egitura: Bozeramaile, presidente (ordezkari gorena), idazkari orokorra edo koordinatzailea, batzordeetako arduradunak....
- Funtzioak:
 - Batzordeetako eta diputazio iraunkorretako kideen izendapena.
 - Gobernuarekiko kontrola
 - Legealdietan:
 - Osoko emendakinak
 - Ekimen legegilea: 15 diputatu edo talda bat.

Gorte Orokorren Funtzionamendua eta antolaketa

Gobernu-organoak

- Ganberako presidentea: Kongresu eta Senatuko presidentek ganbera bakoitzeko agintaritza edo aginpide gorena dira. Haiei dagokio ganbera ordezkatzeko; besteak beste, honako eskumen hauek ere badituzte:
 - Parlamentuaren Osoko bilkuran eztabaida zuzentzea
 - Zalantza-kasuetan, erregelamendua interpretatzea; eta, hutsunean daudenean, konponbidea erabakitzea.
 - Ganberako mahaia eta Bozeramaileen biltzarraren buru izatea.
- Ganberako mahaia: Parlamentuaren lana antolatzen duen organoa da. Ganbera bakoitzean mahai bat dago eta alor politikoan baino, administrazio- eta

kudeaketa-kontuetan dagokio parlamentuaren zuzendari-funtzioa. Alor politikoan, berriz, Bozeraamaileen Biltzarrak du nagusitasuna. Mahaiaren funtzioak hauek dira:

- Ganberaren gastuak onartu eta baimentzea
- Ganberaren ekintzaren programazioa eta Osoko Bilkuraren zein Batzordeen jardueraren egutegia finkatzea.
- Ganberara heltzen diren idazkien izapideak erabakitzea.
- Bozeraamaileen Biltzarra: Mahaia ganberaren alor politikoa gidatzen duen organoa da eta honela osatzen da: talde parlamentario bakoitzeko bozeraamailea bana eta Gobernuaren ordezkari bat. Erabakiak boto haztatuaren bidez hartzen dira. Hau da, bozeraamaile bakoitzak bere taldea ordezkatzeko du eta, beraz, ganberan duen kide kopuru adina boto izango du haren taldeak. Osoko bilkuraren eguneroko gaiak ordenatzea da Biltzarraren funtziorik garrantzitsuenak. Horretarako, Presidentearen adostasuna behar du.

Funtzionamendu eta deliberazio organoak

Osoko Bilkura eta batzordeak dira.

- Osoko Bilkura: ganberako kide guztiak osatzen dute. Bilkura horretan ekintza parlamentarioak eztabaidatu eta onetsi egiten dira. Osoko Bilkurak (80. artikulua) saio publikoak izango dira. Publikotasun hori dela eta, eduki politiko sakona duten funtzio eta eztabaidak izaten dira, eta batzordeen esku uzten dira lanik teknikoaren espezializatuenak, bai eta oihartzun publiko txikiak dutenak ere. Presidenteak presiditzen du eta horrek egiten du Osoko Bilkuraren deia.
- Batzordeak: eskuordetu ditzake Osoko Bilkurak lege-proiektu edo lege-proposamenak ones ditzaten. Osoko Bilkurak edozein unetan berreskura ditzake eskuordetutako lege-proiektu edo lege-proposamen bati buruzko eztabaida edo bozketa.
 - Batzorde motak:
 - Iraunkor legegileak: Lege proiektu eta proposamenak aztertzen dituzte. Delegazio legislatiboa dute haien alde.
 - Iraunkor ez legegileak: Parlamentariaren estatutua, bateraezintasunak, izendapenak...
 - Beste batzuk: Bi ganberaren batzorde misto.
- Ganberaren Diputazio iraunkorrak: zenbait denboralditan, ganberak ez dute lanik egiten (oporraldia, ganberak desegin direnanean eta hauteskundeetarako deia egiten denean). Ganberak desegin gabe ezin da hauteskundeetarako deia egin, eta, beraz, ganbera batzuen agintaldia bukatu eta berrien agintaldia hasi artean denbora-tarte bat egongo da saiorik gabe. Ganberak badute funtzionamendu-organoren berezi bat, eta horri funtzio mugatu eta jakin batzuk gaineratzen zaizkio: Diputazio iraunkorra. Bi motatakoak dira, alde batetik, oporraldietan dagozkionak eta, bestetik, agintaldia bukatu eta gero bete beharrekoak.
 - Oporraldietan, Diputazio Iraunkorrak ganberaren aparteko osoko bilkurak deitu ditzake, hau da, oporraldian berebiziko konponbidearen bat behar duen ezer gertatuz gero, Osoko Bilkurako deia berezia egingo dute.

- Agintaldia bukatzean, Diputazio Iraunkorrek bere gain hartzen ditu lege-dekretuei buruz Kongresuak dituen ahalmen guztiak, bai eta alarma, salbuespen edo setio egoeretan dagozkionak ere.

Gorte Orokorren funtzioak

- Funtzio legegilea: Parlamentua da Botere legegilearen titular bakarra. Kontuan izan behar da, dena den, gaur egun, gobernuak gero eta parte-hartze handiagoa duela arauak sortzean. Erabakiak agudo eta zehaztasun tekniko ugari eta konplexuekin hartzeko, esate baterako, Parlamentuak ez du gaitasun handirik, espezializazio gutxiago kide askok osatzen dutelako. Beraz, gero eta erabaki gehiago utzi behar izaten dira Botere betearazlearen esku. Parlamentuak Oinarri-lege bat onartu eta han espresuki Gobernuari ematea lege hori garatzeko ahalmena. Oinarri-lege horretan zehaztu diren lerro nagusiei jarraituz, dekretu legegile deritzon erregelamendu bat sortuko du Gobernuak. Baina, berariazko ordezkaritza horrez gain, badaude beste ordezkaritza-formula batzuk ere. Parlamentuaren legeek, oro har, alderdi asko uzten dituzte zintzilik, eta, alderdi horiek betetzeko, Gobernuak erregelamenduak sortzen ditu. Espainian ez dago lege-erreserba negatiborik. Lege-erreserba negatiboak esan nahi baitu, hain zuzen, lege bidez arautu daitezkeen gaiak Konstituzioak berak espresuki aurreikusi dituen horiek direla. Erreserba horrek ondorio zuzen bat dakar, alegia, Gobernuak ahalmen erregelamendugilea duela Konstituzioaren zerrenda itxian agertzen ez diren beste gai guztietan. Espainiaren kasuan, badaude zenbait gai legerari erreserbatuak, baina beste gai guztiak ere arautu daitezke lege bidez.
- Aurrekontu-ahalmena: Estatuaren Aurrekontu Orokorrek izaten dira botere publikoek urtero diru-sarrerei buruz egiten duten aurreikuspena. Horien onespenez urteroko gastuetarako baimena dakar berekin eta, beraz, onartu beharra dago Estatuaren funtzionamendua berebiziko trena direla. Aurrekontu Orokorrek lege baten bidez onartzen dira. Espainiako Konstituzioak zenbait berezitasun adierazi ditu lege honen onspen-prozedurekiko:
 - Ekimena Gobernuari soilik dagokio, berak antolatzen baititu aurrekontuak.
 - Urte baterako onartzen dira
 - Abenduaren 31rako onartu ezean, aurreko urtekoek jarraituko dute indarrean.
- Gobernuaren kontrola, fiskalizazio eta erantzukizun politikoaren exigentzia: hirugarren funtzioa klasikoa da. Konstituzioak adierazten duenez, Gorte Orokorrek gobernuaren ekintza kontrolatzen dute. Ez dago Gobernuko kide baten edo batzuen erantzukizun politikorik, Gobernu osoarena baizik. Beraz, Gobernuko presidenteari bakarrik ken diezaioke Kongresuak bere konfiantza, eta, azken finean, harekin batera, presidente horrek osatutako gobernu-talde guztiari. Fiskalizazio mota bi daude: alde batetik, ohikoa, Gobernuaren eguneroko lana fiskalizatzen duena eta bestetik, erantzukizun politiko eskatzen duena, hau da, gobernuaren erorketa bilatzen duena (zentsura-mozioa)

10. Gaia: Koroa

Espainiako Konstituzioan gai polemikotzat hartzen da, izan ere, beste botereen aurretik agertzen da eta gainera erreformatzeko prozedura berezia behar da. Konstituzioko 56.1 artikulua Erregeari Estatuaren Buruzagitza ematen zaio, hau da, Erregea Estatu Burua da. estatu demokratiko batean, ezin du botere efektibo bat izan. Soilik beste organo juridiko edo politikoen ematen dituzten erabakiak formalizatzen mugatzen da. Ez du beraz botere errealek. Monarkiaren erregulazioa Espainiako Konstituzioaren 1.3 artikuluan ezartzen da. Monarkia instituzio historiko bat da, eta Konstituzioan arautua dago ohitura luze baten ondorioz, eta baita aurreko erregimenak ezartzen zituen oinordekotza aurreikuspenak bete nahi izan zirelako. Trantsizioa aldaketa politiko “paktatu” baten ondorio izan zela, eta bere egungo errekonozimendua, orduko hitzarmenean ditu erroak.

Koroaren bilakaera

Koroa konfiguratzeko duten elementuak

- Erregea: Espainiako Konstituzioko 56 art. estatu buruzagitza ematen dio. Erregeak koroa pertsonifikatzen du eta Estatuaren batasun eta iraunkortasunaren ikurra da. Konstituzioaren menpekota da, baina, Konstituzioa zin egin behar du.
- Oinordekotza: Monarkia hereditarioa da Konstituzioko 57. artikuluen arabera. Oinordetza hartzen da, baina, adina eta sexua garrantzitsuak dira.
- Erregeordea: Bi egoeratan ematen da, alde batetik, oinordekoa adingabea denean, eta, bestetik, Erregea inhabilitatu dutenean. Adingabekoen kasuan, aita edo ama erregeorde izango dira (59.1 artikulua). Edo bestela, oinordekotza lerroan hurrengo adinez nagusia. Erregeordea printzea litzateke adinez nagusia balitz, bestela, 57 artikulua jarraituz.
- Errege etxe: Espainiako Konstituzioak 65. artikuluan zehazten du, eta Estatuko Aurrekontuetan partidak egoten dira.

Erregearen ekintzen izaera berrespenaren beharra

Erregearen funtzioen izaera juridikoa

Ez da soilik sinbolikoa. Bere funtzioek eragin juridiko-konstituzionala dute. Eragin juridikoa du bere jardunak.

Berrespena

Konstituzioaren 56.3 artikuluen arabera erregea bortxaezina eta erantzukizunik gabekoa da. Koroaren titularra denez, Erregea ukiezina da eta ezin zaio eskatu erantzukizun politikorik bere funtzioak betetzean egindako ezergatik. Horren adierazgarri da erregearen ekintzen berrespena da. Erantzukizun politikorik ez duenez, ez ditzake bere funtzioak bere kabuz bete, beste pertsona baten berrespena behar du. Berrespena Konstituzioaren 64. artikuluan ezartzen da eta oro har Gobernuko Presidenteari edo dagokion Ministroari dagokio berrespen hori; kasu batzuetan, Diputatuen Kongresuko presidenteari eskatu behar dio berrespen hori, hala nola, hauteskundeak eta gero Diputatuen Kongresuari gobernu-presidentziarako hautagaia aurkezteko. Azken kasu horretan, erregearen esku badago ere Gobernuko presidentegaia proposatzea, proposatu aurretik nahitaezko urrats batzuk jarraitu behar ditu erregeak; eta, behin proposatuta ere, Diputatuen Kongresuko presidentek berretsi beharko du hautagai horren proposamena.

Erregearen funtzioak

Botere exekutiboari dagokionez

Gobernu presidenterako hautagaia aurkezten du, baita izendatu eta eten ere. (62.d artikulua). Horretarako kontsultak egin behar ditu alderdietako ordezkariekin (99. artikulua). Ekinbide politikoa ematen da, beraz. Gainontzeko funtzioak formalak besterik ez dira: Ministroen izendapena, presidentearen proposamenari jarraiki; Ministro kontseiluaren dekretuen bidalketa; Estatu aferen gaineko informazioa; Ministroen kontseiluko saioen presidentzia, presidenteak hala eskatuta. Bere diskurtso politikoak arautu gabe daude. Ez daude berrespena behar duten ekintzen artean.

Botere legegileari dagokionez

Legeek Erregearen berronespena edo aldarrikapena jasotzen dute. Erregea hori egitera derrigor-tua dago eta 15 eguneko epea dauka egiteko.

- Berronespena: Legean sinatzea da, bere zizilua jarritz. Monarkia parlamentarioetan erregea eta parlamentuaren arteko kosoberaniaren erreminiszentzia da (Gaur egun erregeak boterea galdu du eta ikur sinbolikoa besterik ez da). Sistema presidentzialistetan bi botereen bereizketa zorrotzaren isla da, zeinaren arabera presidenteak legea betatu dezake. Beharrezko ekintza da.
- Aldarrikapena: Araua perfektionatu dela eta obeditu behar dela adierazteko ekintza da. Modu honetan, onartutako legea autentifikatu egiten da eta ordenamendu juridikora inkorporatu egiten da. Berez ekintza deklarati-boa da, zeinaren arabera formalki adierazten den lege bat onartu dela eta herritarrek eta botereek bete behar dutela.

Aurreko funtzioaz gain, Erregeak Gorteak deitu edo disolbatu egiten ditu.

Botere judizialari dagokionez

117. artikulua-ren arabera, justizia herritik eratortzen da eta erregearen izenean administratzen dute epaile eta magistratuek, hala ere, formula historikoa besterik ez da, izan ere, Erregeak ez du inolako eskumenik.

Bestelako funtzioak

Espainiako Konstituzioaren 65.2 artikulua-ren arabera, Erregeak askatasunez egin ditzake zenbait funtzio: bere etxebizitza gobernatzea edota zerbitzariak aukeratzea.

11. Gaia: Gobernua eta administrazioa

Gobernua eta gobernu sistema parlamentarioa

Konstituzioaren 99. artikulua-k ezartzen du inbestidura.

Gobernuaren osaketa

Presidentearen inbestidura

Kongresua berritzen denean, Presidente-a hiltzen denean, Presidenteak dimisioa ematen duenean edo konfiantza-mozioa galtzen duenean. Kongresuak hautagaia onartu eta gero, Erregeak izendatuko du formalki Gobernuko Presidente-a. Izendapen hori Kongresuko Presidenteak berretsiko du. Gobernu-eraketa bi fasetan burutzen da. Lehenik eta behin Kongresuak Gobernuko presidente-a hautatzen du inbestidura prozesuaren bidez. Ondoren, behin honek kargua hartuta, bere gobernuaren ministroak eta presidente-ordea izendatuko ditu.

- Inbestidura prozesua: Parlamentuan ordezkaturik dauden alderdi politiko bakoitzeko ordezkari banakin biltzen da erregea (kontsulta fasea). Ondoren erregeak Diputatuen Kongresuari hautagai bat proposatzen dio. Erregeak proposatutako hautagaiak, bestalde, Kongresuan bere gobernu-programa aurkeztuko du eta kongresukideen konfiantza eskatuko du. Kongresuak gehiengoz konfiantza ematen badio, erregeak presidente izendatuko du hautagai hori. Lehenengo bozketan erabateko gehiengoa behar du; lortuko ez balu bigarren bueltan nahikoa luke gehiengo soilarekin. Hautagaiak lortuko ez balu Kongresuaren babes, kontsulta fasera itzuliko ginateke, beste hautagai baten bila. Lehenengo hautagaiaren lehen bozketatik bi hilabete pasa daitezke gehienez presidente berri bat egon bitartean, epe hori pasa ondoren gobernuko presidenterik ez balego Gorteak disolbatu eta hauteskunde berriak ospatu beharko lirateke.
- Gobernuko beste kideen aukeraketa, Gobernuko beste kideei dagokienez, Konstituzioaren arabera, horiek ere Erregeak izendatuko ditu, baina izendapena Gobernuko Presidentearen proposamenez egingo da eta izendapenaren berrestea Gobernuko presidenteari izango da.

Gobernuaren amaitzea eta jarduneko gobernua

Espainiako Konstituzioaren 101. artikulua arrazoiak finkatzen ditu: Hauteskunde Orokorren ondorioz, Konfiantza Parlamentarioa galdu duenean (konfiantza edo zentsura mozioa) eta presidenteari dimisioa edo heriotza. Kargutik kendutako gobernuak ez du hutsunerik sortzen gobernu-erakundearen. Espainiako Konstituzioaren 101. artikulua adierazten duenez, kargua uzten duen Gobernuak bere funtzioak betetzen jarraituko du, Gobernu berria karguaz jabetu arte. Kargua utzi duen Gobernuak, jardunean dagoenez, ohi baino ahalmen gutxiago izango du, handik gutxira kargua hartuko duen Gobernu berriaren lana ez konprometitzearren edo estatusunean ez jartzearren. Gobernu Legearen 21.3 artikulua Jarduneko gobernuak gobernu berriaren osaketa prozesua erraztuko du, eta baita botere eskualdatzea ere. Bere kudeaketa ohiko gaiei bide ematea izango da, eta ezin izango du beste erabakirik hartu. Soilik urgentziazkoak direla demostratu den gaitan, eta beti ere interes orokorraren mesedetan direla erakusten bada, erabakiak hartzen ahalko ditu, baina salbuespena da. Jardunean dagoen gobernuak ezingo du, orobat, Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektua onetsi, ez eta beste lege-proiekturik aurkeztu Diputatuen Kongresuari edo Senatuari. Horrez gain, Gobernua jardunean dagoen bitartean, Gorte Orokorrek Gobernuari emandako ordezkariak legegileak etenda egongo dira

Administrazio publikoa

12. Gaia: Gorte Nagusien eta Gobernuaren arteko harremana

Botere banaketaren garapenean planteamendu nagusi bi agertu izan dira, alde batetik, estatu botere eta erakundearen artean banaketa argi eta sendoa bat bilatzen duena. Ameriketako kolonietan agertu zen sistema hau eta Sistema presidentzial esaten zaie eredu hau jarraitu dutenei. Bestalde, bigarren planteamenduaren aburuz, botereen nahasmena saihesteko behar dena da botere eta erakundearen arteko lankidetzaren eta oreka bat. Europar agertu zen sistema hau Sistema parlamentario esaten zaie eredu hau jarraitu dutenei. Sistema parlamentarioetan Gobernu eta Parlamentuaren arteko elkarlana beharrezkoa da beraz, bakoitzak bere

eginkizunak bete ahal izateko. Lankidetzak hau posible izan dadin, legegintzaren hasieran funtsezko akordio bat eratu behar da gobernu eta parlamentuaren artean eta konfiantza hori mantendu behar da legegintzaldia bukatu arte. Konfiantza harreman honek eskatzen du gobernuak parlamentuaren aurrean politikoki erantzutea bere ekintzak direla eta. Espainiak Konstituzioan 108-116 artikuluetan ezartzen da.

Gobernuak inbestiduraren bitartez jasotzen du Parlamentuaren Konfiantza. Gure sisteman Gobernuaren Presidenteari (eta ez gobernu osoari beraz) ematen dio Diputatuen Kongresuak konfiantza.. Printzipioz helburua da konfiantza hori legegintzaldi osoan mantentzea (4 urte inguru), baina badaiteke harreman hori kolokan jartzea:

- Diputatuen Kongresuko kideen parte batek zentsura mozioa aurkeztu dezakete, Gobernuaren presidentea bere kargutik kendu eta beste presidentea berri bati kargua ematea proposatuz.
 - Zentsura-mozioa: Kongresuak duen mekanismo bakarra bere kabuz Presidenteari konfiantza kentzeko. Konfiantza parlamentarioa kentzearekin batera, Kongresuak beste presidentea bati eman behar dio konfiantza hori. Hala, Gobernuaren erakundearen iraunkortasuna segurtatzen da, nolabait. Zentsura-mozioa aurkezteko, beharrezkoak dira, gutxienez, 35 diputaturen sinadurak (diputatuen % 10 gutxi gorabehera). Zentsura-mozioaren izapideak bideratzea onartuz gero, une horretatik aurrera, Gorteak desegiteko ahalmena galtzen du Gobernuak, bai eta beste hauteskunde batzuk deitzeko ere. Zentsura-mozioa aurkeztu eta gero, bost egun itxaron behar dira bozketa egiteko. Zentsura-mozioak aurrera egiteko, Diputatuen Kongresuan gehiengo absolutua lortu behar du (hau da, gutxienez aldeko 176 boto, Kongresuaren %50+1). Gehiengo hori lortzen ez bada, Gobernuak ganberak desegiteko ahalmena berreskuratuko du eta ezingo da beste zentsura-mozio bat aurkeztu hurrengo jardunaldia hasi arte.
- Bere aldetik, Gobernuaren Presidenteari konfiantza-arazoa aurkeztu dezake, Kongresuari galdetuz ea oraindik haren konfiantza duen.
 - Konfiantza-arazoa: Konfiantza-arazoan, Exekutiboa bera da Parlamentuaren konfiantza duen edo ez jakin nahi duena. Arazoa, beraz, Gobernuaren presidenteari aurkeztuko du kongresuan, Ministro Kontseiluan horri buruz eztabaidatu ondoren (112. artikulua). Konfiantza-arazoa irabazteko, bozketara aurkeztu diren diputatuen gehiengo soilaren aldeko botoa behar da. Beraz, konfiantza-arazoa eta zentsura-mozioa irabazteko eskatzen diren gehiengoaren desberdintasunak argi erakusten duenez, Konstituzioak Gobernuaren egonkortasuna segurtatu nahi du. Konfiantza-arazoa galtzen bada, Gobernuaren Presidenteari bere dimisioa aurkeztu beharko dio erregeari. Horren ondoren, Gobernuaren presidentea berria aukeratzeko prozesua zabalduko da, 99. artikulua adierazten duen modura. Bi hilabeteren buruan presidentea berririk izan ezean, ganberak deuseztatu egongo dira eta beste hauteskunde-deialdi bat egingo da

- Gorteak disolbatzea, hauteskunde berrietarako deialdia aurreratuz.
 - Ganberak desegiteko gaitasuna: Legegintzaldia bukatzen denean printzipioz Gorteak disolbatu behar dira eta hauteskunde berrietarako deialdia egin behar da, aparteko ezer gertatzen ez bada behintzat. Baina kontuan hartu behar da ere parlamentuaren desegitea gerta daitekeela legegintzaldia bukatu aurretik. Sistema presidentzialetan ez bezala, sistema parlamentarioetan gobernuak historikoki izan du parlamentua desegiteko gaitasuna eta hala jaso du ere Espainiako Konstituzioak 115. artikuluan. Gobernuko presidentearen esku dago aukera eta erabili ezker bukatutzat emango litzateke Kongresuarekin zuen konfiantza-harremana. Desegite honekin batera hauteskunde berrietarako deialdia egingo du eta hauteskunde horien ondoren Kongresu berriak izango du Gobernuko Presidentea hautatzeko gaitasuna. Hori gertatu bitartean desegitea agindu duen jarduneko presidentek mantentzen du kargua.

13. Gaia: Botere Judiziala

Botere Judiziala edo jurisdikzio-funtzioa antolakuntza konstituzional konplexu baten bidez arautzen da, askotariko organo judizialeetan banatzen da. Askotariko organo horiek osatzen dute botere judiziala, bakarra eta unitarioa (baina deskonzentratua) dena, eta gainontzeko botereetatik independente behar duena. Autonomia Erkidegoek botere legegilearen eta exekutiboaren zenbait ahalmen eskuratu dituzten arren, Botere judiziala bakarra da Estatu osoan. Horrek zentzu du, epaileek aplikatu behar dituzten arauak ordenamendu juridiko bakarra osatzen dutelako. Hau da, Estatuak eta Autonomia Erkidegoetako erakundeek sortzen dituzten arauak ordenamendu juridiko bakarrean biltzen dira; eskumen batzuetarako, Estatuako Parlamentuak emango du legea eta, beste batzuetarako, Autonomia Erkidegoetako 17 legebiltzarrak izango dira eskudun. Konstituzioaren VI. Tituluan arautzen da (Espainiako Konstituzioa 117-127 artikuluetan). Botere Judiziala Madrilen zentralizatuta dago, hau da, ez dago Autonomia Erkidegoetan deszentralizatua. (117.5. artikulua).

Botere Judizialaren gobernuak: Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra

Botere Judizialaren gobernuari dagokio: epaile eta magistratuen Estatutu juridikoa, bai eta funtzio jurisdikzionalaren ikuskatzea ere. Bere funtzioak Konstituzioan jasotzen dira: izendapenak, maila igoerak, inspektzioak eta disziplina-erregimena. Ez da botere judizialaren parte, ez baitu funtzio jurisdikzionalik betetzen. Espainiako Konstituzioak 122.2 artikuluan zehazten du. 20 kidez eta presidente batez osatuta dago. Kontseilu hori hogeita bostetik eta Auzitegi Goreneko presidentek osatzen dute. Bokalak Kongresuak eta Senatuak aukeratzen dituzte (bakoitzak hamarna); ganberako kideen botoen 3/5 behar dute. BJKOren presidentea bokalek berek hautatzen dute eta Auzitegi Goreneko presidentea izango da ere. Bokalak hautatzeko sistema honako hau da: 12 bokal nahitaez, epaile edo magistratu izan behar dute, edozein kategoria judizialekoak. Beste 8 bokalak, berriz, lanbidean hamabost urte baino gehiago eman duten jurista edo legelarien artean aukeratzen dira. Kongresuak eta Senatuak launa aukeratuko dituzte. BJKOren funtzio garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Epaile eta magistratuen izendapenak erabakitzea
- Epaile eta magistratuen igoerak erabakitzea

- Diziplina-ahalmena: Botere Judizialeko kideak zigortzeko, edota lekutik aldatzeko, ahalgabetzeko zein zerbitzutik egozteko eskumena duen erakunde bakarra.

Bokalak hautatu eta izendatu ondoren, bokalen taldeak Auzitegi Goreneko presidentea aukeratzen du; gutxienez, botoen 3/5 lortu behar da. Auzitegi Goreneko presidentea BJKO buru izango da; eta, Senatuak eta Kongresuak zuzenean aukeratu ez zuten kide bakarria izaki, berriro, BJKOko kide izan daitekeen bakarria da. Senatuak eta Kongresuak Botere Judiziala gobernatzen duen organoaren kideak hautatzen dituztenez, pentsa daiteke Botere Judizialaren independentzia kolokan dagoela, baina, botere-banaketa absolutua bilatu beharrean, botereen arteko lankidetzak eta kontrola bilatzen zen. Horrek berekin zekarren, hala nola, botere batek besteen antolamenduan zeresana eduki ahal izatea, bai eta hainbat funtzio batera betetzea ere. BJKOrako hautatuak izan ondoren BJKOko kideak Parlamentuaren eraginpetik aske gelditzen dira. Erabaki garrantzitsuenak hartzeko gehiengo garrantzitsuak behar dira parlamentuan, adostasun-maila bat; eta, talde parlamentario nagusienak, besteen iritzia kontuan hartu beharko ditu. Amaitzeko, kontuan hartu behar da BJKOko kideen agintaldia 5 urtetarako dela. Parlamentuko kideen agintaldiak baino urte bat gehiago irauten du eta, bost urte horietan zehar, oso zaila da bokal bat bere kargutik kentzea. Bestalde, behin BJKOko kide izan ondoren, ez da zilegi berriro hango kide izatea.

Ministerio fiskala

Ez da Botere Judizialaren barruko erakunde bat. Ministerio Fiskalari ez dagokio epaitzea eta epaitutakoa betearaztea, ez da jurisdikzio organo bat. Ministerio Fiskalaren lana da (124.1. artikulua). Justiziaren lana sustatzen du, ofizioz edo interesdunaren eskariz, hau da, batzuetan bere kabuz (Legeak horretarako ahalmena ematen dionean), eta beste batzuetan, norbaitek eskatutakoan. Legezketasuna babesteko hau da, legeetan, Parlamentuak aurreikusi duena bete dadin; herritarren eskubideak babesteko eta legeak babesten duen interes publikoa defendatzeko sustatzen du Justiziaren lana. Bi irizpidek zuzentzen dute Ministerio Fiskalaren jarduna:

- Jardunerako batasun printzipioa: prozedura bateko faseetan parte hartzen duten fiskal guztiek, bai eta goragoko instantzietan parte hartzen dutenek ere, estrategia eta jarrera berak atxiki behar dituzte. Gorde beharreko jarrerarekin ados egon ez arren ere, hartara behartuta daude.
- Hierarkiazko mendekotasun printzipioa: Ministerio Fiskalaren erakundearen egiturari hainbat maila daudela, eta behean daudenek goian daudenen ordena eta jarraipideak bete behar dituztela. Erakunde horren gailurrean Estatuko fiskal orokorra dago, Ministerio Fiskalaren buru egiten duena. Fiskal orokorra Gobernuak izendatzen du fiskal askoren artean, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra gomendatzen diona entzun eta gero.

Barne-politikaren ikuspegitik, ondorio garrantziak ditu horrek. Gobernuak barne-politika zuzentzen du eta fiskal orokorra izendatzen du. Fiskal orokorrak, berriz, Ministerio Fiskalaren ekintzak zuzentzen dituenez, argi dago Ministerio Fiskala izango dela gobernuaren politika kriminalaren gauzatzaile nagusietako bat. Ez da ahaztu behar, dena den, Ministerio Fiskalak, auzipetze penaleko salatzailea izateaz gain, beste funtzio batzuk ere betetzen dituela: esate baterako, adingabeak babesten ditu prozedura zibiletan, adingabe horiek beste

ezein babeslerik ez dutenean. Gaur egun Fiskaltza bereziak daude: ustelkeriaren aurka, antolatutako delinkuentziaren aurka eta drogaren aurka.

14. Gaia: Auzitegi Konstituzionala

Konstituzioaren eraginkortasuna sendotzeko tresna da Konstituzio Auzitegia. Haren funtziorik behinena da Konstituzioaren interpretari gorena izatea da; eta Konstituzio Auzitegia da legeen konstituzionaltasunik eza baieztatzeko eskumena duen bakarra. Konstituzio Auzitegiak benetako jurisdikzioa du. Ez dago Botere Judizialaren barruan Hala eta guzti ere, epaitegien bi ezaugarri garrantzitsuenak ditu:

- Epailtza-funtzioak betetzen ditu
- Burujabea da.

Konstituzioaren IX. Tituluan (159-165 artikulua) araututa dago Auzitegi Konstituzionala. 12 magistratuk osatzen dute eta horrela erabakitzen dira:

- Lau, Diputatuen Kongresuak proposatuta
- Lau, Senatuaren proposamenez
- Bi, Gobernuak proposaturik
- Bi, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak proposaturik

12 kide guztiak izen handiko juristak, epaileak, fiskalak, unibertsitateko irakasleak, funtzionarioak eta abokatuak dira, 15 urteko esperientzia eduki behar dute. Hiru urtero bere herena berritzen da, beraz, bederatziretan behin osorik berritzen da.

Konstituzio Auzitegiak eskumen-sail handia du, gatazka konstituzional guztiak konpontzea baitagokio:

- Lege-indarra duten arauen konstituzionaltasun-kontrola egiten du: lege-indarra duten arauen konstituzionaltasun-kontrolak helburutzat du Konstituzioaren lehentasuna segurtatzea botere publikoen ekintza legegileen gainetik. Bi motatakoa izan daiteke:
 - Difusoa: jurisdikzio arrunteko epaile eta auzitegiek egiten dute. Edozein epailek egiten du; kontrola kasu zehatz baten bidez egiten da; epaileak ez du legea ezeztatzen, inplikatzeko baizik
 - Kontzentratua: organo berezi batek (Auzitegi Konstituzionala) egiten du, ez da kasu zehatzean oinarritzen, legea indargabetu dezake
- Konstituzio kontrakotasun helegitea: Espainiako Konstituzioan 161.1.a) artikulua zehazten du zer den Konstituzio kontrakotasun helegitea (arau edo lege bat Konstituzioaren dionaren aurka egitean) eta 162.1.a) artikulua adierazten du nor jarri dezakeen Konstituzio kontrako helegitea (Gobernuko Lehendakariak, Arartekoak, 50 diputatu edo senatarik eta Autonomia Erkidegoetako gobernu edo parlamentuek, beren autonomiari eragiten badie). Normalean ez du eragin suspentsiborik, salbuespena Estatuak Autonomia Erkidegoen aurka jotzen duenean. Suspentsioa automatikoa da eta 5 hilabeteko epean suspentsioa berretsi edo kendu behar da.
- Konstituzio kontrakotasun galdera: Espainiako Konstituzioan 163. artikulua ezartzen du. Epailtza batek planteatzen du, betiere, kasu konpontzeko funtsezkoa bada. Hiru betekizun ditu Konstituzio kontrakotasun galdera: lege-mailako araua, epailearen kasurako funtsezkoa bada eta Konstituzioaren kontrakotasun izan ahal izatea. Behin

Konstituzio kontraktotasun galdera eskatuta, kasua suspenditu egiten da Auzitegi Konstituzionalak epaiak eman arte.

- Babes-helegite konstituzionala: aurretik bide judizial osoa behin agortuta soilik eskatu daiteke. Ez du aurkatzen diren epaien irmotasuna suspenditzen. Espainiako Konstituzioak 53.2 artikulua bermatzen dituen eskubideak ez direlako bermatu eskatzen da. Espainiako Konstituzioak 161.1.a) artikuluan ezartzen da non jar daitekeen eta zergatik babes helegitea eta 162.1.b) artikulua nork jar dezakeen adierazten du (edozein pertsona).
- Eskumenen gatazka
- Atribuzio gatazkak organo konstituzionalen artean
- Nazioarteko tratatuen kontrol prebentiboa
- Tokiko autonomiaren defentsan udalerrri zein probintziak Autonomia Erkidegoen edota Estatuaren legeen aurka jarritakoak

15. Gaia: Oinarrizko eskubideen eta askatasunen etena

Espainiar Konstituzioak berak, aparteko edo anormaltasun konstituzionalaren egoeraren aurrean, salbuespen zuzenbide bat aurreikusten du.

- Eskubideen ahalgabetze indibiduala (55.2 artikulua): kasu jakin batzuetan, legeak hala aurreikusten badu, zilegi da zenbait funtsezko eskubide ahalgabetzea, betiere tarte jakin baterako. Ahalbide horretatik kanpo daude bizitza-eskubidea eta osotasun fisikoa atxikitze eskubidea; heriotza-zigorra gerra-garaiean bakarrik da onargarri. Askatasun pertsonala, adierazpen-askatasuna, bozkatzeko eskubidea, batzartzekoa, eta abar ahalgabetu daitezke. Esate baterako, kartzela-zigorra betetzen den bitartean. Zigor hori jartzeko, beharrezkoa da aukera hori ematen duen lege bat, eta kasu jakin batean lege horren aplikazioa baimentzen duen epaile bat.
- Eskubideen ahalgabetze kolektiboa: Salbuespen-egoeretan biztanleriaren zati baten edo biztanleria osoaren zenbait oinarrizko eskubideak ahalgabetu edo mugatu daitezke. Ahalgabetze horrek denbora-tarte jakin baterako izan behar du, eta salbuespeneko egoera bat gainditzeko asmoz egin behar da. Salbuespen-egoera horietarako, Konstituzioak adierazi ditu oinarrizko eskubideen erabilerari ezar dakizkioken mugak. Hiru salbuespen egoera daude:
 - Alarma egoera (116.2 artikulua): normaltasuna era lazgarrian aldatzen duen egoeraren bat gertatzen denean. Hala nola, lurrikarak, uholdeak, suteak, izurriteak edo premiazko gaien urritasuna. Autoritate eta funtzionario publiko guztiak autoritate kompetentearen menpe geratzen dira, eta honek agindutakoa bete behar dute. Ez ohiko lanak ezarri ahalko zaizkie (mediku bati adibidez, bere kontratuak ezartzen dituenak baino gehiago lan egitera behartzea). Gobernuak dekretatu du, edo Autonomia Erkidegoko lehendakariak asko jota 15 egunetako epearekin. Azalpenak Kongresuari eman beharko zaizkio, eta honen baimenik gabe ezin izango da luzatu. Alarma egoeratan ez da inolako eskubiderik etetzen. Honen adibidea, hegaldi kontroladoreen grebak.
 - Salbuespen egoera (116.3 artikulua): oinarrizko eskubide eta askatasunak aske

erabili ezin direnean, erakunde demokratikoez edo zerbitzu publiko garrantzitsuenek ohi bezala funtzionatu ezin dutenean, edo ordena publikoko beste edozein alderdi garatzeko oztopoak latzak direnean, eta ahalmen arruntekin ezinezkoa denean normaltasunera itzultzea. Alarma egoeretan ezartzen diren neurriei eskubideen suspentsioa gehitu behar zaio, eskubide horien suspentsioa Espainiako Konstituzioak 55.1 artikuluan ezartzen dira. Gobernuak deklaratu behar du baina aurretik Kongresuaren baimena behar da. Bai baimenak eta bai deklarazioak bere aplikazio eremua, bere eraginak eta bere iraupena finkatu beharko ditu. Gehienez bi hilabete luzatu daiteke.

- Setio egoera (116.4 artikulua): Estatuaren subiranotasun edo independentziaren aurka, edota lurraldearen osotasun edo konstituzio-ordenamenduaren aurkako matxinada edo indar-ekintza bat gertatu denean edo gertatzeko arriskua dagoenean, eta Gobernuak hura konpontzeko beste bitartekorik ez duenean. Ia gerra egoeratan ezartzen da. Kongresuan gehiago absolutua behar da. Kongresuak ezartzen du, gobernuaren proposamenaz, eta Kongresuak baldintzak, lur eremua eta iraupena ezarriko ditu. Alarma egoeran ezarritako neurriei eta salbuespen egoeratan suspenditutako eskubideak Espainiako Konstituzioko 17.3 artikuluen suspentsioa ere gehitu behar zaio, hau da, atxilotuen bermeak ezartzen dituen eskubidea (55.1 artikulua)

16. Gaia: Estatuaren lurralde antolamendua

Deszentralizazio politiko eta administratiboa

- Administratiboa: estatuaren eskuduntzak entitate lokalei ematen direnean gertatzen da. Autonomia mugatua da, botere legegilerik gabe (udal eta probintzien arauak ez dute lege mailarik). Sortutako arauak auzitegi arruntek kontrolatzen dituzte (legalitate kontrola).
- Politikoa: autonomia maila handiagoa, botere legegilearekin. Parlamentu lurraldetarrak existitzen dira; ordenamendu juridiko propioa dute; hauen arauak, lege mailakoak, Auzitegi Konstituzionalak kontrolatzen ditu.

Estatu erregional autonomikoa

Formula malgua da eta tokian tokiko ezaugarri ezberdinak ditu. Konstituzioan autonomia duten lurralde-erakundeak ezartzen dira eta horien funtsezko arauak autonomia-estatutuak dira. Konstituzioan eskumenen banaketa egiten da eta autonomia lurralde osora zabal daiteke (Espainia) edo zenbait tokitara (Portugalen Madeira eta Azoreak)

Eskuduntzen banaketa Estatua eta Autonomia Erkidegoen artean

Gai edo materia baten inguruko funtzio baten gaineko titulartasuna da eskumena eta Konstituzioak ez du zehazten zenbat eta zeintzuk diren Autonomia Erkidegoak, ez eta beraien eskumenak ere. Edozein kasutan eskumenei dagokionez, ez dira mugagabeak, Espainiako Konstituzioak 149.1 artikuluan, Estatuaren eskumen eskusiboaren zerrenda adierazten du eta, 148.1 artikuluan, Autonomia Erkidegoek eduki ahal dituzten eskumenak zehazten ditu. Horretaz gain, 149.3 artikuluan 149.1 artikuluko zerrenda horretatik kanpo dagoena

Autonomia Erkidegok jaso dezakete beraien eskumen bezala; baina, Konstituzioak estatuari esleitzen dizkio autonomiek bere gain hartzen ez dituzten eskumenak. Konstituzioak bi autonomia-erkidego mota eratu zituenez (autonomia mugatukoak: Madril, Kantabria, Aragoa; eta autonomia osokoak: Galizia, Katalunia, Euskadi) bi zerrenda eskaintzen ditu 148 artikulua zerrenda itxia dena, eta 149.3 artikulua zerrenda irekia dena.

Eskumen motak

- Estatuaren eskumen eskusiboak: Gai edo materia baten gaineko funtzio guztiak estatuaren titulartasunaren mende geratzen dira. Alegia, funtzio betearazle eta legegilea.
- Partekatutako eskumenak: estatuari dagokio legegintza funtzioa (legeak eta erregelamenduak egiten ditu). Funtzio betearazlea Autonomia Erkidegoen esku geratuko da.
- Eskumen konkurrenteak: Estuari oinarritzko araudia ematea dagokio, eta Autonomia Erkidegoek hau garatzeko eta betearazteko aukera izango dute.

Autonomia Erkidegoen antolaketa

Autonomia-estatutua

Erkidegoko oinarritzko legea da. Euskal Herrian 1979ko Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntza daude indarrean. Autonomia-Estatutu batek eduki minimo batzuk jaso behar ditu:

- Autonomia Erkidegoaren izena
- Lurraldea
- Erakundearen izena eta antolakuntza
- Eskumenak
- Erreforma prozedura

Gernikako Estatutuaren egitura

Atariko titulua:.....	1. artikulutik 9.era. I.
Titulua: Euskal Herriari dagozkion eskumenak.....	10-23. art.
II. Titulua: Euskal Herriko botereak	
Atariko kapitulua:.....	24. artikulua
I. Kapituluak: Eusko Legebiltzarra.....	25-28 art.
II. Kapituluak: Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria.....	29-33. art.
III. Kapituluak: Justizia Administrazioa Euskal Herrian.....	34-36. art.
IV. Kapituluak: Lurralde Historikoen erakundeak	37. art.
V. Kapituluak: Euskal Herriko ahalmenen kontrola.....	38. 39.
art. III. Titulua: ogasuna eta ondarea.....	40-45. art.
IV. TITULUA: Estatutuaren erreforma.....	46-47. art.
Xedapen gehigarriak eta iragankorrak	

Eskumenak

Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak Gernikako Estatutuan agertzen dira, eta horiek Espainiako Konstituzioaren 148.1 artikulua ezarritakoaren arabera izango

dira, alegia, Autonomia Erkidegoek eduki ahal dituzten eskumenak. Hauek EAEko eskumen partekatuak dira:

ESTATUA ETA EAEaren arteko ESKUMEN PARTEKATUAK:

- **Hezkuntza:** Estatuak oinarrizko legedia onartzen du; eta AA.EEak oinarrizko alderdi horiek garatu. Ikerkuntza zientifikoa ezik, Irakaskuntza erabat eskualdatuta dago
- **Komunikabideak:** Estatuak oinarrizko legedia onartzen du; Estatutuaren 19.3 artikulua arabaera EAEk telebista, irrati eta prentsa propia arautu eta sor dezake (EITB)
- **Osasun-arloa:** Estatuak oinarrizko legedia onartzen du. Estatutuaren 18. artikulua osasunari buruzko eskumenaz arduratzen da (Osakidetza: Osasun pertsonala EAEko funtzionarioak eta ospitaleak EAEn menpe)
- **Gizarte-segurantza:** Bereiztu behar da: gizarte-segurantzaren erregimen ekonomikoa eta gizarte-segurantzari loturiko gainerako alderdiak. Eskumen horrek banaketa konplexua du: Lehenengoan, EAEk kudeaketa eskumena soilik dagokio, bigarreanean, legegintzaren garapena
- **Oraindik eskualdatu ez diren eskumen batzuk:** Ingurumena, desjabetzearen erregimena, administrazio-erantzunkizunaren erregimena, arrantza-sektorearen erregimena, kreditua/bankuak/aseguruak, meatzak eta energia-erregimena...
- **Konkurrentziako eskumenak (dirulaguntzak...)** eta **Eskumen bereizigabeak (Kutura...):** Arlo gutxi batzuetan Estatuak eta erkidegoak funtzio berak izan ditzakete (EK, 149.2)
- **Estatutuko 17. artikuloa:** Ordena publikoa (Ertzaintza): Konplexotasun handiko eskumena
- **Autonomia Erkidegoak beren estatutuetan jaso ez dituzten eskumenak** Estatuko eskumenak izango dira (EK 149.3 art.)

Organoak eta egituratze orokorra

- Batzar legegilea edo Legebiltzarra: ordezkaritza organo nagusia da, ganbera bakarrekoa (Eusko Legebiltzarra). D'Hont sistema proportzionala erabiltzen da EAEko hiru barrutietako eserlekuak hautatzeko. Hainbat funtzio ditu, esaterako, funtzio legegilea, aurrekontuak onartzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren kontrola dauka eta horietaz gain, senatari autonomikoak hautatu, konstituzio kontrakotasun helegiteak aurkeztu ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena ez da autonomia erkidegoko organoa, izan ere, botere judiziala Madrilen zentralizatua dago, baina Autonomia Erkidegoetan deskontzentratua.
- Lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza: hainbat funtzio ditu: legegintza ekimena, erregelamenduen onarpena, zuzendaritza politikoa eta administrazio gidaritza. Hurrengo osaketa dauka:
 - Gobernu kontseilua: lehendakaria + sailburuak. Sailburuak lehendakariak izendatu eta kargugabetzen ditu. Sailburuek beren saileko administrazioa zuzentzen dute.
 - Lehendakaria: parlamentuaren konfiantza behar du. Parlamentuak hautatzen du.

Gernikako Estatutuak gobernu parlamentario bat hartzen du sistematzat, non Lehendakariak Eusko Legebiltzarraren babesaren behar baitu bere kargua lortu eta gordetzeko. Lurralde Historiko bakoitzari 25 legebiltzarkide dagozkie Eusko Legebiltzarrean, eta horiek bozkatzeko unibertsal, aske eta sekretupeko aukeratzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren ezaugarriak bereziki dira: lurralde-artikulazioa eta kontzertu ekonomikoak. Alde

batetik, botere legegile eta betearazlea bereizi behar dira, eta, bestetik, EAE baino barruti txikiago batzuetarako erakunde politikoei ere boterea eman zaiela. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Lurralde Historikoez osatzen dute Euskadiko Autonomia Erkidegoa. Lurralde historikoez, euskal erakunde komunitarian parte hartzeaz gain, badituzte beren organo propioak ere, Estatutuak atxikitzen dituenak: Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak. Erakunde horiek eskumen garrantzitsuak dituzte beren gain, batez ere ogasunari dagokionez. Kontzertu ekonomikoen erregimena 1876an ezarri zen, foruen ezabapenaren ondoren. EAEko finantza-sistemaren ardatz nagusia Kontzertu Ekonomikoa da.